

LITERATUR LEHIAKETA 2021 ORIO



ESKOLA-UMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2021

ORIO



Azala: Iraia Lozano
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

Aurkibidea

<i>Hitzaurrea. Libana Taboada</i>	5
<i>Natura. Oinatz Iriarte</i>	7
<i>Laguna. Oiane Gude</i>	9
<i>Zaren bezalakoa zara. Lea Villen</i>	9
<i>Surflari bat igerilekuan. Jare Miner</i>	13
<i>Alderantziz txalokatu. Itsaso Zaldia</i>	17
<i>Poema. Maren Manterola</i>	17
<i>Ukiren istorioa. Lucia Fernandez</i>	19
<i>Galtzagorriak eta mamuak. Maren Manterola</i>	21
<i>Eguzkia eta ilargia. Julen Atxega</i>	23
<i>Urtaroak. Elaia Lasarte</i>	25
<i>Nire ametsetako abentura. Lur Iglesias</i>	25
<i>Kapitain euskalduna. Adur Garmendia</i>	27
<i>Aitona-amonak. Oier Iruretagoiena</i>	31
<i>Europa. Kattalin Agote</i>	32
<i>Xinpronioaren auto miragarria. Oier Iruretagoiena</i>	35
<i>IstORIO bat gogoratzeko. Jare Millares</i>	39
<i>Gaztearen bizitza. Aitor Alonso</i>	43
<i>Bizitza. Martina Esnal</i>	43
<i>Cousilloneko misterioa. Maddi Etxeberria</i>	45
<i>Tenplu gorria. Hodei Gastiain</i>	51
<i>Errefuxiatuak. Amaiur Sukia</i>	57
<i>Mendia eta ni. Luis Pikabea</i>	59
<i>Naizen bezalakoa naiz, nahi dudalako. Intza Beldarrain</i>	61
<i>Nire errealitate berria. Klara Puertas</i>	63
<i>2020. Unai Lertxundi</i>	71
<i>Txakurra negarrez dabil. Mikel Genova</i>	71
<i>Aspaldiko izaki bitxia. Kattalin Zinkunegi</i>	73
<i>Helmuga: etxera iristea. Itxaso Ayerbe</i>	83
<i>Hutsal. Maider Olariaga</i>	87
<i>Joandakoak. Ugaitz Astigarraga</i>	89

Hitzaurrea

Udako opor-egun lasaia zen. Haur, guraso eta aitona-amonak herrian zebiltzan jolasean, erosketetan, paseoan...

Plazako kafetegietako mahaietan eserita zeudenek ikusi zuten lehenengo: handi bezain beldurgarria zen laino beltz potolo bat sartu zen Orion Talaimendi gainetik, trumoi, tximista eta haizez lagundurik.

Egun eguzkitsu zena, ilundu egin zen bat-batean. Gurasoak haurrak deitzen hasi ziren, etxera joateko.

—Azkar, etxera!

Aitona-amonek lan gehiago zuten etxera itzultzeko, erosketa-orgatxoak arrastaka tiraz, egunkariarekin ilea eta aurpegia babesteko saiakeran.

Behin herritarrak babespean, azkar hasi ziren telefono-dei eta whatsappak. Herriko umeei era oso berezi eta arraroan eragin baitzien ekaitz beldurgarri hark. «Nire Mikel triste gelditu da, ez du jolasteko gogorik!», «Ba, gure Nahia berdin: ez du mozorrotu nahi, bere jolas gustukoena hori den arren... zer arraroa!», «Aitorrek ukitu ere ez du egin gaur panpina. Ezta ipuin bat bera ere».

Gurasoak, orduan, eztabaida luzeen ostean, ondorio larri batera iritsi ziren: ekaitz hark haurren irudimena eraman zuen!

Haurrak triste eta apal, aurpegi ilun eta grisez zebiltzan Orion hurrengo egunean. Gurasoak, aldiz, kezkatutik.

Bazen herrian, ordea, haur-kuadrilla txiki bat, ekaitzak eragin ez ziona. Kuadrilla hura, asteazken arratsaldero liburutegira joateko gelditzen zena zen: bakoitzak ipuin labur bat aukeratu, irakurri eta, handik irtetean, kuadrillako besteei kontatu eta azaltzen zien.

Kuadrillatxoaz azkar hasi zen erantzun eta konponbide bila, haietako baten etxe-ko egongelan elkaturik, lurrean borobilean eserita, kuxinen gainean batzuk, alfonbran etzanda besteak.

Hasteko, zer zela eta ez ziren berak irudimenik gabe gelditu? Beharbada, beste haurrek baino irudimen indartsuagoa zutelako? Ezin jakin. Bestetik, zer egin zezaketen irudimena herrira bueltan ekartzeko?

Orduan, etxe-ko birraitona azaldu zen egongelan: Joxe. Herriko gizonik zaharrena zen, 105 urte beteak. Joxek dena entzun eta lehen pista bota zien horrela: gauza bera gertatua ba omen zen aurretik Orion, duela 100 urte.

Kuadrillako haurrei begiak ilargi betearen antzera borobil-borobil jarri zitzaizkien eta galderak egiten hasi zitzaizkion Joxeri: «Eta nola ekarri zenuten irudimena bueltan Oriora?», «Bakarrik bueltatu al zen?», «Joxe, kontatu zer egin zenuten, mesedez!».

Joxek kontatu zien nola, 100 urte atzera, itsasontziz iritsitako pirata maltzur batzuk sortu zuten ekaitza, nahita, haur tristet osatutako herria ez baita oparoa eta, horrela, errazago izango baitzuten Orio konkistatzea.

Herriko neska-mutilek, pirata konkistatzaileak herritik bota ahal izateko, piratek ezkutatutako liburu magikoa bilatu beharra zuten, liburu hartan gordea baitzegoen herriko irudimena eta, hura irakurriz gero, laino beltzaren sorginkeria suntsituko baitzen. Garai haietan, Anarriko arroken artean aurkitu omen zuten liburu magikoa. Joxek ez zekien, ordea, liburua leku berean egon zitekeen oraingoan.

Han joan ziren, bada, kuadrillako haurrak, Anarriko arroketara, pirataz jantzita: begietan partxeak, galtza kortsarioak eta plastikozko ezpatez armatuta.

Denbora luze egin behar izan zuten arroketan, olatuen aurka, halako batean, haietako batek liburu magikoa aurkitu zuen arte.

—Aurkitu dut! Hemen dago!

Azkar batean, bizikletetara igo eta herrira itzuli ziren.

Elizako kanpandorreraino eskalatu zuten, liburu magikoa besapean. Gora igotzea kostatu zitzaien eta, iritsi zirenerako, jende piloa bildua zegoen plazan, inguruko karkaretan, balkoietan, kuadrillak zer egin behar ote zuen galdezka.

Igo zirenean, haur bakoitza norabide baterantz kokatu, eta ipuina irakurri zuten, garrasika, Orioko haur guztiek entzun zezaten. Eta, pixkanaka, ipuina aurrera zihoan heinean, herriko haurren aurpegi triste eta begi itzaliak pizten eta koloretzatzen hasi ziren. Ahoetan irribarreak marrazten. Eta irudimenez beteriko jolasetan murgiltzen hasi ziren.

Esku artean duzun liburuxka Orioko haurren irudimena gordetzen duen liburu magikoa da. Gozatu!

Libana Taboada

Natura

Natura,
lasai egoteko,
ondo bizitzeko,
paseatzeko,
bide politenak ikusteko,
toki ederrenak gozatzeko,
zortea dugun aukera.

Lakurik urdinenak,
baso berdeenak,
mendi elurtuenak,
zelai koloretsuenak,
arrats argitsuenak
gozatzeko nahi duenak.

Gose ez izateko,
jaten ematen digu;
egarri ez izateko,
euria eta elurra ditugu;
eta, airea sortzean,
bizitza ematen digu.

Animaliez eta landareez
inguratzen gaitu,
eguzkiak
argizatzen gaitu
eta gauetan
ilargiak eta izarrek alaitu.

Oinatz Iriarte



Aiora Palau Martinez

Laguna

Lagunari buruz
da nire olerkia.

Da oso ona
nire laguna,
dibertigarria
eta barregarria.
Asko jolasten du.
Batzuetan haserretzen gara,
baina barkatzen dit...
barkatzen diot.

Zer ona nire laguna!

Oiane Gude Artuzamonoa

Zaren bezalakoa zara

Bazen behin, Naiara izeneko neska altu-altu bat, bere aita eta amarekin bizi zena.

Neska horrek lan asko egiten zuen; inoiz ez zitzaion etxeko lanik egitea ahazten. Bere ikaskideak baino askoz altuagoa zen eta baita traketsa ere eta, horregatik, haiek baztertu egiten zuten Naiara. Bere ikaskideentzat neskatila erraldoia zen; besteak txikiagoak ziren. Horregatik, jolasteko orduan, molestatu besterik ez zuen egiten; edo hori iruditzen zitzaion besteei, behintzat. Ondorioz, lagunek ez zuten Naiara berekin jolasterik nahi eta neskatila bakarrik sentitzen zen.

Egun batean, jolasgaraian, lagunek zera esan zioten Naiarari:

—Ez dugu zuk gurekin jolasterik nahi. Baldarra zara eta traba bestetik ez duzu egiten!

Momentu hartan irakaslea etorri zen, eta denak korrika batean joan ziren ezkutatzerara, harrapaketan arituko balira bezala. Orduan, irakaslea, Marga, zerbait gertatu zela susmatuz, Naiararengana joan zen, uste baitzuen min egin ziotela edo halako zerbait. Baina Naiarak, beldurtuta, erantzun zion:



Aiora Rodriguez Masa

—Ez, lasai. Ni ondo nago. Jolasten ari gara, besterik ez.

—Ondo da —esan zuen Margak.

Jada gelara joateko ordua zen eta gainontzeko ikasle guztiek bultza egiten zioten Naiarari, azkena gelditzeko. Orduan, Naiara gelako atearen aurrean makurtu eta negarrez hasi zen. Margak ikusi zuenean, korrika batean joan zen eta galdetu zion:

—Naiara, zer gertatzen zaizu?

Eta Naiarak erantzun zion:

—Lasai, ez zait ezer gertatzen... Batzuetan, negarra ateratzen zait bakarrik, arrazoirik gabe —eta irribarre egin zion irakasleari.

—Ziur zaude, Naiara? Zerbait baldin baduzu, esan lasai, laguntzen saiatuko naiz.

Naiarak ezetz esan zion.

Etxera joateko ordua zen eta bakoitza bere etxera joan zen. Bazkaldu eta gero, berriz ere ikastolara joateko ordua iritsi zen.

Lehenengo saioan matematika zeukaten eta gelako guztiak isekaka jardun ziztzaizkion Naiarari Marga etorri arte. Marga etorri zenean, ordea, denak txintxo-txintxo zeuden. Hogei minutu pasa eta gero, Naiarak komunera joan nahi zuen. Komunera joan zenean, negarrez hasi zen. Marga irakasleak negarrak entzun zituen eta Naiararengana joan zen:

—Naiara, zer gertatzen zaizu? Negarrez ari al zara?

Naiarak erantzun zion, beldurtuta:

—Niri? Ezer ez. Lasai! Pixaren soinua izan da.

Irakaslea ez zegoen lasai, baina argi zegoen Naiarak ez zuela ezer kontatu nahi.


Jada ordua zen etxera joateko.

Hurrengo egunean, Naiarak ez zuen ikastolara joan nahi, bere ikaskideek burla egin eta baztertu egiten zutelako.

Naiara oso gaizki sentitzen zen. Ama bere logelara sartu zenean eta hain triste ikusi zuenean, esan zion:

—Zaren bezalakoa zara, Naiara, eta ezin diozu gauzak egiteari utzi, besteek burla egiten dizutelako edota altuagoa izateagatik molestatu egiten diezula esaten dizutelako... Zuk asko balio duzu! Ez ahaztu hori sekula.

Naiarak bazekien amak, gehienetan, arrazoi zuela, eta malkoak lehortu zituen eta ikastolara joan zen korrika batean, konturatzerako berandutu egin baitzitzaion. Margak errieta egingo zion berandu iristen bazen.



Aiur Eskibel Albeniz

Lehenengo orduan, soinketan, saskibaloian jolastea tokatzen zen lehendabiziko aldiz. Besteek ez zekiten Naiara saskibaloian oso ona zenik. Ordu mordoa pasatzen zuen lehengusuekin auzoko saskibaloikantxan. Naiarak besteek baino askoz kanasta gehiago sartu zituen soinketako saioan eta oso trebea ere izan zitekeela erakutsi zuen beste kiroletan ere.

Bere ikaskide guztiak harrituta geratu ziren, inork ez baitzuen espero zerbaitetan ona izango zenik. Orduan, Naiara beste begi batzuekin begiratzen hasi ziren.

Herriko festetan saskibaloitxapelketa bat antolatu zuten eta denek nahi zuten Naiara beren taldean izatea. Zeinek esango zion Naiarari horrelakorik!

Ordutik aurrera Naiara konturatu zen zerbaitetan ona zela eta bere burua maitatzen hasi zen.

Bere ikaskideak ere Naiara maitatzen hasi ziren. Geroztik, Naiara oso gustura joaten zen ikastolara eta bere lagunak ere errespetatzen zuten, nahiz eta oso neskabila altua izan. Bere ingurukoek Naiararen alde onak ikusten ikasi zuten, ez baitzen saskibaloian bakarrik ona, gauza asko egiten zituen ondo. Gainera, berak ere bere burua maitatzen ikasi zuen eta zoriontsu bizi izan ziren Naiara eta bere ikaskideak.

Lea Villen

Surflari bat igerilekuan

Familia bateko neskatxa bati asko gustatzen zitzaion surf egitea. Maria izena zuen neskatxak, Orion bizi zen eta 12 urte zituen. Gurasoek ez zioten uzten Orioko hondartzan surf egiten. Moilan ez zitzaion gustatzen surf egitea eta, orduan, txantxetako olatuak jartzen zituzten igerileku batera joaten zen Maria. Igerileku hori ere Orion zegoen. Han oso ondo pasatzen zuen eta bere lagunak ere joaten ziren. Ia beti joaten zen lagunekin igerilekura surf egitera. Jende asko joaten zen igerilekura; oso handia zen eta piszina asko zituen. Ikaragarri gustatzen zitzaion Mariari. Gainera, olatu handiak jartzen zituzten.

Egun batean, Maria bere lagunekin joan zenean, itxita ikusi zuten igerilekua. Barruan marrazoak ikusi zituzten eta baita odol-markak ere! Maria beldurtu egin zen. Bere lagun Maleni gogor heldu zion besotik eta Mariaren lagun guztiak barrez lehertzen hasi ziren. Egun hartan Inuzenteen Eguna zen eta Maria erabat ahaztuta zegoen. Odol-markak ketchuparekin eginda zeuden eta marrazoak gezurrezkoak ziren. Maria ere barrez lehertzen hasi zen bere lagun txantxarekin; hori bai, sus-toa gainetik kendu ezinda egon zen denbora luzez.



Enara Santamaria

Maria buzeatzailea ere bazen eta, egun batean, zulo bat ikusi zuen igerilekuan. Zuloaren barrura sartu zen eta tunel bat ikusi zuen. Beldur pixka bat ematen zion tunel hartatik sartzeak, baina pentsatu zuen ausarta zela, hori egiteko gai zela eta lortuko zuela tunelean sartzea! Orduan, tuneleko bideari jarraitu zion eta, bat-batean, hondartzan agertu zen.

Bidea ikasi zuen egunetik hondartzan egiten zuen surf.

Bazen surflari bat, egunero hondartzara joaten zena eta, Maria han ikustean, harrituta geratu zen hari begira. Konturatzeko, arratsalde osoa pasa zuen Mariak surf nola egiten zuen ikusten.

Baina surflari hura ez zen ikusten ari zen bakarra. Itsasertzeko eguneroko paseoa ematen ari zen Mikel, Mariaren aita, eta hura ere Mariari begira-begira geratu zen. Hasieran ez zuen ezagutu, piszinan zegoela uste baitzuen, baina etxera joandakoan ez zion ezer esan.

Beste egun batean, berriz ere hirurak hondartzan zirela, surflariak Mariaren aitari esan zion:

—Oso ondo egiten du surfean neska horrek! Ba al dakizu nola izena duen?

Mariaren aita harrituta geratu zen mutil hark esandakoarekin. Ez zuen gehiegi ulertzen surfaz, baina ez zekien bere alaba surfean ona zenik.

—Maria izena du eta nire alaba da.

Surflariak, orduan, esan zion:

—Uretatik ateratzen denean, bihar elkarrekin ea surfeatuko dugun galdetuko diot! Ea truko batzuk erakusten dizkiodan...

Hortik aurrera poz-pozik egiten du surf Mariak surflariarekin eta bere aita benetan bere alaba surfean ona dela sinetsita dago.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Orioko hondartzan.

Jare Miner



Ixel Agirre Larrañaga

Alderantziz txalokatu

Gaur alderantziz txalokatuko dugu:
galtzaileak zorionduko ditugu
eta herrenei festa antolatuko diegu;
azkena iristen direnei
pankarta bat zabalduko diegu,
eta besarkatuko ditugu baldarrak,
eta babestu koldarrak.

Eta irabazleak?
Irabazleak burumakur joango dira,
malkoak begi bietan isuriz,
triste eta goibel,
garaikurrik gabe.


Gaur traketsak igoko dira podiumera,
eta irabazleak esku hutsik joango dira.

Itsaso Zaldúa Peña

Poema

Etxean badut gela txiki bat,
eta gela txikian kaxoi handi bat,
kaxoi handian panpina txiki bat bizi da
eta panpina txikiak badu motots luze bat,
motots luze horrek xingola txiki bat du
eta xingola txikiak, hari luze bat zintzilik,
eta hari luzeak, zorri txiki-txiki bat, lo ederrean.

Maren Manterola Gastañazpi



Hassan Ali

Ukiren istorioa

Uki panda zuri-beltza da. Belarri txikiak ditu, begi bixiak eta buztan birbiribila. Ukiren janari gustukoena azenarioa da, eta nire aitonaren baratzeakoak asko gustatzen zaizkio. Oso jostalaria eta alaia da. Bere herrian oso gaizki pasatu zuen eta batzuetan triste egoten da, baina nik kilimak egiten dizkiot eta segituan hasten da barrez.

Uki Txinan bizi zen, itsasoa zuen herri txiki batean. Egun batean, urakana agertu eta herri guztia txikitu zuen. Hondartzan Eli izeneko surflari bat ikusi zuen:

—Bakarrik al zaude? —galdetu zion Elik.

—Bai, nire familia guztia galdu dut.

—Benga, sartu furgonetan eta nirekin etorriko zara!

Eta Euskal Herrira joan zen, Orio izeneko herrira.

Egun batean, Uki Orioko hondartzara joan zen. Asko gustatzen zitzaion hondartzara joatea, Txinan ere askotan joaten zen. Han, neska bat ikusi zuen kometaekin jolasten:

—Utziko al didazu kometan nire lagun Martari mezu bat bidaltzen?

—Non dago zure laguna?

—Uste dut Txinan egongo dela, baina ez dakit... urakana agertu zen eta ez dakit bizirik dagoen.

—Nahi baduzu marrazki bat ere egin dezakezu!

—Eskerrik asko. Martari eta niri asko gustatzen zitzaigun dragoia marraztuko dut.

Ukik sugea bezalako gorputza marraztu zuen, atzapar luzeekin eta buru handiarekin. Gorriz eta laranja margotu zuen. Marrazkiaren behe aldean hauxe idatzi zuen: «Uki naiz. Bbizirik al zaude?». Neskatzak lagundu zion kometa aireratzen.

Udako arratsalde eguzkitsu batean Uki eta Eli surf egitera joan ziren. Olatuak harrapatzen ari zirela, itsasontzi bat ikusi zuten hondartzara hurbiltzen. Brankan kometa ikusi zuen Ukik:

—Eli! Goazen ikustera itsasontzi horretako kometa!

—Arroketan aurkitu dut. Mezu bat dauka eta horregatik ekarri dut hondartzara —esan zuen arrantzaleak.

—Erakutsiko al didazu, mesedez?



Eneko Urain Santano

—Bai, bai!

Kometan Ukik marraztu zuen dragoi berdina zegoen, eta oharrak hau esaten zuen: «Uki, bizirik nago».

—Benga, sartu furgonetan eta nirekin joango zara! —esan zion Elik.

Lucia Fernandez Albizu

Galtzagorriak eta mamuak

Zarautzen bazen Nahiara izeneko neskatila bat. Egun batean, ikastolatik etxera itzuli zenean, amak esan zion:

—Nahiara, inauterietan Bakarneren etxera joan beharko duzu, nik lana dut-eta ospitalean.

Nahiara oso pozik jarri zen, asko gustatzen zitzaion-eta Zarauzko Santa Barbara auzoa. Bakarne han bizi zen, baserri batean.

—Ama, zuk ni behean utzi, eta bakarrik igoko naiz baserriraino.

Nahiara oso neska ausarta zen eta, 10 urterako handia zenez, bakarrik abiatu zen Bakarneren baserrira. Bidean zihoala, kutxa bat ikusi eta hurbildu egin zen, oso kuxkuxeroa zen-eta. Ireki eta izugarrizko sustoa hartu zuen ikusi zuenean galtzagorri mordoa kutxatik irteten. Nahiara Bakarneren baserrira lasterka joan zen. Gertatutakoa kontatu zion eta Bakarnek esan zuen:

—A, orain ulertzen dut nork egin dituen gure baserriko lanak, zeren eta ama, aita eta ni ez gara etxetik irten lau astetan COVIDagatik.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak ziren eta ilunabar ederra zegoen. Nahiara eta Bakarne kanpora irten ziren ilunabarraz goatzera. Bat-batean galtzagorriak agertu ziren oihuka:

—Lehengoa egindako lan guztia desegino dugu —esan zuen galtzagorri zaharrenak.

Galtzagorriek geldirik egoten ez dakitenez, gauzak egin eta desegin egiten dituzte.

—Ezta pentsatu ere! Ez diegu utziko dena zapuzten! Zerbait egin behar dugu! —esan zion Bakarnek Nahiarari.



Adei Uranga

—Ideia bat daukat, Bakarne! Gogoratzen al zara nola mozorrotu ginen lehengo urtean?

Bakarneri begiak eta ahoa zabaldu zitzaizkion hori entzun zuenean:

—Ideia bikaina, Nahiara!

Bat-batean, bi uraza dantzan hasi ziren ilaratik irtenda: bi pausu aurrera, pausu bat ezkerrera, bestea eskuinera, salto txiki bat eta berriro! Galtzagorriak aho zabalik geratu ziren:

—Baina, baina... Zer gertatzen zaie uraza hauei? Lagundu, mesedez! Urazak sorginduta daude! Mamuak daude baratzean!

Bakarne eta Nahiara barrez lehertzen ari ziren uraza-mozorroaren azpian.

—Goazen hemendik, bestela erotu egingo gara! —esan zuten galtzagorriek.

Bakarne oso pozik zegoen galtzagorriek ez zutelako lortu dena suntsitzea.

—Dantzan jarraituko dugu, Nahiara!

Beti bezala, Nahiarak oso ondo pasatu zuen Bakarneren etxean.

Maren Manterola Gastañazpi

Eguzkia eta ilargia

Eguzki, zu beti alai eta distiratsu,
zuri esker ikusi ahal dugu,
bizi, jolastu eta berotu gaitezke.

Baina, Eguzki, hain ederra izanik,
zergatik ezin zaitugu begiratu?
Lotsatia zara zeharo.

Ilargi, Eguzkiaren argiaren islatzaile,
zu mirestea atsegin duzu, ordea;
ederra zara eta erabat lotsagabea.

Julen Atxega Makazaga



Alex Barranco Albeniz

Urtaroak

Udara eta negua, hotza eta berua.
Udaran hondartza, neguan lokatza,
biak desberdinak, biak atseginak.

Udazkena eta udaberria,
hau da komeria,
batzuetan eguzkia
eta bestetan euria.

Laurak elkarturik,
urtea osaturik,
ez dago ezer hoberik.

Elaia Lasarte

Nire ametsetako abentura

—*Patxi Oliden gogoan*

Baziren Mikel, Erik eta Oier izeneko hiru gazte eta haiei asko gustatzen zitzaizkien surfa eta abenturak. Egun batean, Mikel aitonaren ganbarara joan zen, han zer zegoen kuxkuxeatzera eta Patxi Olidenen Itsas Tresnak aurkitu zituen; denak 1970ekoak. Txundituta zegoen, Eriki eta Oierri aipatu eta beren bizitzetako abentura hastea erabaki zuten: Hawaiira joatea Pipelineko olatua Patxiren surf-oholarekin surfeatzeko.

Aireportura abiatu ziren eta, iritsitakoan, bertan hegaldiari itxaroten gelditu ziren croissant bat jaten eta surfeko aldizkariak irakurtzen. Hawaiira iritsitakoan, Patxiren Itsas Tresnak atera eta alokatuta zuten etxera joan ziren. Maletak utzi eta hawaiiarren bizitza ezagutzera joan ziren. Han jende asko zebilen dirua eskatzen eta nahiko bizitza tristea zuten batzuek. Gure hiru mutilek janaririk ez zeukatenez, janaria eroatera joan ziren. Hangoen ohiturak ikasi nahi zituztenez, hango jakiak erosi zituzten: ahuakatea, piña...

Pipelinen zeuden, beren ametsetako hondartzan, eta olatuak hartzera joan ziren. Olatuak ez ziren oso onak, baina gustura ibili ziren.



Laida Erauskin Ortega

Surfegin eta gero hawaiiar modura egindako entsalada jan zuten. Bukatutakoan, kalera atera ziren. Kristoren jende pila zegoen eta parranda giro handia. Hawaiiar batek gauean hondartzan egingo zen festara gonbidatu zituen eta baietz esan zioten. Gauea iritsi zenean, hondartzara joan ziren eta han zeuden denak, parrillada prestatzen. Suaren ondoan eseri ziren eta, orduan, jendea hango istorioak kontatzen hasi zen. Berak isil-isilik zeuden entzuten eta, orduan, hawaiiar bat surfeko istorio bat kontatzen hasi zen:

«Bazen behin Shan izeneko mutiko bat, bere bizitza guztia surfean pasa zuena. Egun batean, ikaragarritzko itsasaldia sartu zen, kristoren olatu indartsuekin, bost-sei metrokoak. Olatu bat hartu, erori, arroken kontra jo eta bertan hil zen».

Hiru lagunak guztiz txundituta geratu ziren. Jendea beldurrez zegoen, baina «lokalek» esan zieten lasai egoteko, istorio bat besterik ez zela. Hurrengo egunean esnatu, gosaldia eta olatuak ikustera joan ziren. Olatuek ikaragarritzko indarra zeukaten eta ez zekiten sartu edo ez. Gaueko istorioan kontatutako bezalako olatuak zeuden eta erabaki bat hartu zuten: sartu egingo ziren. Taulak hartu eta hondarretara jaitsi ziren. Kristoren olatuak zeuden, hiruzpalau metrokoak. Pikora iritsitakoan, olatuaren zain gelditu ziren eta, halako batean, ikaragarritzko olatu bat etorri zen. Arraun egiten hasi ziren. Beren Itsas Tresnari abiadura eman eta, olatuaren gainean tente jarri eta gero, tutuan sartu ziren. Beren bizitzako olatua hartu zuten eta gustu-gustura zeuden, bereziki Patxi Olidenen Itsas Tresnarekin jaitsi zutelako olatu hura eta Patxik hori eta gehiago merezi zuelako.

Iritsi zitzaien Euskal Herrira itzultzeko ordua eta... orduantxe... iratzargailuak jo eta esnatu egin nintzen!


Lur Iglesias Landa

Kapitain Euskalduna

Egun batean, Aitor izeneko ume bat bizi zen Orioko herrian. Handitan superheroia izan nahi zuen, baina, zoritxarrez, *bullying*-a egiten zioten eta lagun bakar bat zuen.

Egunero gurasoek eskolara joatera derrigortu egiten zuten eta ez zuten ikastetxez aldatzeko asmorik.

Ikastolan «Potato» deitzen zioten ia denek eta, hori egiten ez zutenek, «El Pepe» esaten zioten. Aitorren lagunak Jon izena zuen eta hark bakarrik deitzen zion bere izenez.



Aimar Aizpurua

Jon astebeterako oporretara joan zen Kanariar irletara eta Aitorrek oraindik eta eragozpen gehiago jarri zituen ikastolara joateko, oraindik eta bakartiago sentitzen baitzen. Aitorrek bazekien zer zetorkion gainera, baina gurasoek ez zioten sinetsi eta, gainera, zigortu egin zuten telebista ikusi gabe. Ez zuen helduen laguntzarekin kontaktzen. «Moldatuko zara, maitea» errepikatzen zioten behin eta berriz.

Arratsalde batean, telebista ikusten ari zen bitartean, iragarki bat ikusi zuen: «Laguntza behar baduzu, 123123 telefonora deitu». Aitorrek deitu egin zuen eta handik laguntza psikologikoa eman zioten. Azaldu zioten, zenbait gauzatan, besteei ez zaiela kasurik egin behar, bera haserretzea besterik ez zutelako helburu. Horrela ikasi zuen Aitorrek besteek esandakoari hainbeste kasurik ez egiten; ondorioz, aspertzen hasi ziren eta ez ziren gehiago berarekin sartu.

Hogei urte beranduago, oporretara joan zen Londresera. Han superheroi berezi batekin topatu zen eta hark superheroi bihurtu zuen Aitor, baina baldintza batekin: superbotereak emango zizkion eta Aitorrek jazarriak ziren hurrei laguntzeko erabili behar zituen botere horiek. Aitor euskalduna zenez, erabaki zuen Kapitain Euskalduna ezizena erabiltzea.

Aitorrek, agindutakoa betetzeko, dokumental batean berak txikitan bizitako jazarpen egoera kontatu zuen eta azaldu zuen nola egin ahal izan zuen aurrera. Arazo bera zuten umeei aholkuak eman zizkien, denok desberdinak garela adieraziz eta besteek maltzurkeriaz esandakoei ez zaiela kasurik egin behar. Pertsona jatorrak izan behar dugula ere azaldu zuen. Hala ere, berak esandakoa nahikoa ez bazen, 123123 telefonora deituta, psikologo adituen laguntza jasoko zutela ere adierazi zuen.

Horrela, berari esker, milioika umeei gainditu egin zuten beren jazarpen-arazoa. Eta Aitorri edo Kapitain Euskaldunari eman zioten superheroi onenaren saria.

Geroztik, Kapitain Euskaldunak Orioko kaleak zaintzen ditu eta, txikitan Aitor jazarri zutenek, haren erasotzaileek, barkamena eskatu diote.

Adur Garmendia Leunda



Unai Goikoetxea

Aitona-amonak

Doinua: Xabier Leteren Habanera

1

Txikitatik egon dira
beti nire_aldamenean,
haiekin sentitu naiz ni
nire bigarren etxean.
Ikastolatik etxera
eguerdian joatean,
bazkaria beti lixto
amonaren platerean,
ta onena izaten zen
larunbata iristean,
poz-pozik ibiltzen nintzen
aitonakin motorrean.
Beti guri laguntzeko,
baita gaixo geundenean,
beti hantxe egon dira
behar izan dudanean.

2

Baina COVIDa etorri
ta denok konfinatuta,
bakoitza bere etxean
kalea debekatuta,
aitona-amona gaixoak
zeuden oso beldurtuta,
gu ezin joan bisitan
ta inork ez zuen kulpa.
Eskerrak meet-a norbaitek
bazeukala asmatuta,
honela egoten ginen
guztiok konektatuta.
Oraindik hango bidea
ez daukat nik ez ahaztuta,
laster berriz bazkaltzeko
mahaia det reserbatuta.

Gabonetan izaten zen
 familian elkartzea,
 eta lekurik onena
 aitona-amonen etxea:
 munduko kroketa_onenak
 Gabon-kantak kantatzea,
 eta nik gero aitonan
 piano zaharra jotzea.
 Aurten COVIDa dela ta
 pena eman dit galtzea,
 baina laster tokatuko
 zaigu txertoa jartzea,
 bitartean gu guztioi
 tokatzen zaigu zaintzea,
 suerte handia izan dut
 guztiok ezagutzea.

Oier Iruretagoiena

Europa

Doinua: Astoa ikusi nuen

Bidaiatuko dugu
 Europa ezagutuz,
 hegazkinez (e)ta kotxez
 trenez edo barkuz.

Maleta hartu eta
 oinez abiatuz,
 toki polit ugari
 goaz ezagutuz.

Datuak eman eta
 asmatuko al duzu?
 Sumendiak, glaziarrek
 daudela jakizu.

Europa iparraldean
kokatu ezazu,
hau Islandia dela
asmatu didazu.

Kontinente hontako
mendirik altuena
hau da eta Mont Blanc
du bere izena.

Bota luze forma du
luze (e)ta estuena
dago(e)neko bakizu
Italia dena.


Hurrengo herrialdea
frutaz dago betea,
bandera bera ere
oso dotorea.

Fondo gorri gainean
eguzkia azaltzea:
Mazedonia txikia
duzu, entzulea.

Polonia (e)ta Grezia,
Frantzia eta Estonia,
Norvegia, Irlanda,
Portugal, Letonia

Askoz gehiago daude,
Europa da handia,
tokik ezagutzeko
baduzu aitzakia.

Kattalin Agote



Kattalin Agote

Xinpronioaren auto miragarria

Bazen behin, Orion, auto-mekanikari bat Xinpronio izena zuena. Xinpronio 65 urte zituen eta ordurako ez zuen lanik egiten. Bere garaian herriko auto denak konpontzen zituen eta ospe handia zuen Orion. Baina orain aspertu egiten da. Ez dauka ezer egiteko.

Egun batean, telebistan naturari buruzko dokumental bat ikusten ari zela, ideia harrigarri bat izan zuen: zaborra erabiliz ibiliko zen motor bat egitea. Etxean sortzen zuen zabor organikoa eta etxe ondoko baserrian zegoen simaur piloa nahastuta, erregai bat sortu zuen eta bere autoari motor berri bat egin zion, erregai horrekin funtzionatzeko. Bi hilabete jardun zen motor berria egiten ia lorik egin gabe eta, bukatu zuenean, oso harro sentitu zen.

Bukatu zuenean, bere auto berriarekin, buelta bat ematea pentsatu zuen Orioko herrian barrena, jendeak bere asmakizuna miretsi eta txalo egiteko. Alkateari deitu zion eta jende guztia plazan elkartu zen auto miragarria ikusteko. Autoan sartu eta poz-pozik joan zen plaza aldera; baina, iritsi zenean, jendea ez zen txaloka hasi. Pozik egon beharrean, guztiak sudurrak tapatzen hasi ziren.

—Hau usain txarra! —esan zuen andre batek.

—A, ze nazka! —esan zuen beste batek.

Xinpronio ez zekien zer egin eta, orduan, alkatea etorri zen.

—Xinpronio! —oihukatu zuen alkatea—. Itzali motor hori eta atera autotik berehala!

—Baina nik ez dut ezer txarrik egin —esan zuen Xinpronio—. Gasolinarik gabe ibiltzen den auto bat asmatu dut, erregai naturalak bakarrik behar dituen.

—Bai, eta kiratsa galanta botatzen duena! —erantzun zion alkatea.

Orduan, udaltzainak azaldu ziren eta Xinpronio autotik atera zuten besotik helduta.

—Garabiarekin zure traste hau etxera eramango dugu eta ez hurbildu gehiago herrira tramankulu honekin! —agindu zioten munizipalek.

Jendeak albotik barre egiten ziola-eta, Xinpronio etxera joan zen oinez eta ez zen handik atera hurrengo lau egunetan. Etxetik atera zenean, Karkara aldizkaria ikusi zuen buzoian eta, lehen orrian zegoena irakurrita, harrituta geratu zen.

—Baina zer demontre da hau? —pentsatu zuen Xinpronio Karkara aldizkariari begira.



Enara Eskibel Albeniz

Herrian bozketa bat egin behar zuten bere auto ekologikoaren harira, usain txarreko ibilgailu hura guztiz debekatzeko asmoarekin.

Bozketaren emaitza autoa debekatzearen alde atera zen eta, orduan, municipalak Xinpronioaren baserrira hurbildu ziren, alkatearen agindua eskutan zutela. Xinpronioaren autoa garabira igo eta udaletxeko biltokira eramane zuten, han gordetzeko eta inork gehiago ez ikusteko.

Handik lau hilabetera egoera oso berezi bat gertatu zen Orion: jendea aurpegia berdea jartzen hasi zitzaion. Kanpotar medikuak etorri ziren eta birus-mota berri batek eraginda zela erabaki zuten. Orduan, ertzainak gure herrira etorri ziren eta, birusa Oriotik kanpora ez zabaltzeko, herritar guztiak barruan konfinatzea erabaki zuten. Oriora ez sartzeko eta Oriotik inork ez alde egiteko, kontrolak jarri zituzten zubiaren bi muturretan, Saikolan eta Bentan, eta Xuai gainean.

Bitartean, jendea birus berriarekin kutsatzen ari zen eta egunero jende gehiago azaltzen zen aurpegi berdearekin. Medikuak harrituta zeuden, baina ez zekiten nola sendatu. Munduko mediku jakintsuenak hurbildu ziren eta haiek ere sendagai baten bila hasi ziren, munduko beste herrietara zabaltzeko arriskua oso handia zelako. Inork ez zuen geratu nahi betiko aza koloreko aurpegiarekin.

Aste batzuk geroago, oriotar ia guztiek letxuga-aurpegi berdea zuten. Pertsona bakarra zegoen aurpegia berdea ez zuena: Xinpronio. Horregatik, jendeak inbidiaz begiratzen zion, baina ez zioten kasurik egiten.

—Seguru birusa Xinpronioak berak ekarri zuela bere auto zikin harekin! —esaten zuten marmarka.

Jendea alkatearengana joan zen kontu horrekin eta alkateak sinetsi egin zien. Xinpronio arriskutsua zen herriarentzat. Haren erruagatik, denak kutsatu ziren eta, gainera, Xinpronio bera izan zen kutsatu ez zen bakarra.

Berriz ere bozketa egitea pentsatu zuten, oraingoan Xinpronioarekin zer egin behar zuten erabakitzeko. Gehiengoak herritik bota nahi zuen, baina sarrera-irteerako kontrolean zeuden ertzainek ez zieten uzten hori egiten. Debekatuta zegoen inor herritik kanpora ateratzea.

Orduan, Xinpronio preso uztea erabaki zuten, bere autoarekin batera. Municipalak etxera joan eta, atxilotuta, almagenera eramane zuten. Ondoren, atea itxi zuten giltzarekin.

Xinpronio oso triste eta haserre geratu zen almagenean bakarrik, bere auto miragarria ikusi zuen arte manta batekin estalita. Ez zitzaion justua iruditzen preso egotea, ez baitzuen ezer txarrik egin. Ez zuen ulertzen zergatik denak gaixotu ziren eta bera ez. Gainera, bere auto miragarria hain txarra bazen, berak izan beharko zuen kutsatzen lehena, bera egon zelako denbora gehien autoarekin lanean.

Orduan, ideia harrigarri bat izan zuen. Agian, alderantziz izango zen: bere autoa eta bere erregai naturala izango ziren gaixotasunaren kontrako sendagaia. Logika zeukan, berak denbora asko pasatu zuelako erregai horrekin lanean. Handik ihes egin behar zuen eta norbaiti esan eta konbentzitu.

Hurrengo egunean, alkateak herri guztia deitu zuen plazara, hitz egin behar zuelako. Xinproniok munizipalei entzun zien autoko bozgorailutik abisua ematen eta pentsatu zuen tarte hori izango zela ihes egiteko momenturik onena.

Xinpronio autora hurbildu zen eta gaineko manta kendu zion. Barruan sartu eta motorra martxan jarri zuen. Ondoren, tope azeleratu eta atearen kontra joan zen. Atea aurrenengo kolpean puskatu zen eta, segidan, Orioko plazara joan zen Xinpronio. Jende guztia han zegoen eta Xinpronio bueltaka hasi zen jende artean, zarata handia ateratzen eta usain txarreko kea botatzen.

Jendea, ikaratuta, oihuka hasi zen eta iskanbila handia sortu zen plazan. Xinpronio bueltaka ibili zen erregaia bukatu zitzaion arte eta, orduan, munizipalak etorri eta atxilotu egin zuten berriz.

—Erotuta dago! —esan zuen batek.

—Ertzaintzari deitu eta hemendik kartzelara eramateko esan behar diogu —erantsi zuen beste batek.

Orduan, jendea builaka hasi zenean, norbaitek esan zuen:

—Begira! Zuen aurpegia jada ez da berdea!

—Eta zurea ere betiko kolorera bueltatu da —erantzun zion beste batek.

Medikuak etorri ziren eta harrituta geratu ziren jendea sendatuta ikusi zutenean.

—Zerbait berezia gertatu al da denok bat-batean sendatzeko? —galdetu zuen mediku batek.

—Gertatu dena da honen guztiaren errudunak ihes egin eta bere kotxearekin plazan bueltaka hasi dela usain txarra zabalduz —erantzun zion alkateak.

Medikuek azterketak egin zituzten eta berehala jakin zuten, birusa sendatzeko, Xinpronioren auto miragarriak botatako usaina zela sendagairik onena. Horregatik, munduko auto-fabrika guztiak Xinpronioren asmakizuna nolakoa zen jakin nahian hasi ziren. Xinpronio pozik zegoen, azkenean bere lanak saria izan zuelako eta, batez ere, birusaren gaixotasunaren erruduna bera ez zelako.

Arazo bat zegoen: bere autoak usain txarra botatzen zuela. Baina horretarako ere aurkitu zuen konponbidea Xinproniok: bere erregaiari arrosak nahastu zizkion. Horrela, autoak, usain txarra bota beharrean, arrosa usaina zabaltzen zuen.

Handik aurrera, autoek ez zuten gehiago airea kutsatu eta zaborra birziklatzeko era bat asmatu zen Xinproniori esker. Gasolindegiek arrosa usaina botatzen zuten eta birusek ezin zuten gizakia gehiago gaixotu.

Oier Iruretagoiena

IstORIO bat gogoratzeko

Duela ez hainbeste, herri honetan, Fara izeneko neskatxa bat bizi zen. Bere izena bezain berezia zen neskatoa. Gurasoak Greziatik etorritako etorkinak ziren eta, beren herriaren omenez, haurrari izen hori jartzea erabaki zuten; beren hizkuntzan «alaia» esan nahi zuen. Kontatzera noan istorioa gertatu zenean, Farak 11 urte zituen. Zuk ere bai, ezta?

Esan dizuedan moduan, Fara neska berezia zen. Bai fisikoz eta baita nortasunez ere. Ile luze-luzea zuen eta aurpegian, berriz, begi handi-handiak eta aho txiki-txikia. Aurpegia bere izaerari lotuta zegoela zirudien, ez baitzuen inorekin hitz egiten. Ia ez zuen lagunik eta horrek, askotan, triste sentitzera bultzatzen zuen. Baina hor zeukan beti Platon zakurra, *Golden retriever* bizkor-bizkorra, beti berari segika itzala balitz bezala.

Farak orduak eta orduak igarotzen zituen irakurtzen; asko maite zuen liburuetako istorioetan bidaiatzea. Horretan zebilen egun batean, bat-batean, zarata arraro bat entzun zuen. Hasieran baxu eta, ondoren, gero eta ozenago, Platon zaunkaka hasi zen arte eta, orduan, zeharo beldurtu zen.

Zakurra zaratari segika hasi zen ziztu bizian eta Farak sentitzen zuen beldurrari aurre egin eta zakurraren atzetik jarraitzea erabaki zuen. Azken finean, zer egingo zuen Farak Platon gabe?

Arnasestuka zihoan neskatila, ezin zion zakurrari jarraitu, eta zarata gero eta jasanezinagoa zen. Ez zuen pentsatu ere egin nahi nola izango zituen belarriak Platonek, txakurrek pertsonak baino askoz ere altuago entzuten baitituzte soinuak. Txakurrari ezin jarraiturik, hura herritik gertuko mendian galtzen ikusi zuen. Akabo!

Ettxera itzuli zen, lur jota. Bere lagun leiala galdu zuen eta ez zuen inor laguntza eskatzeko. Inoiz baino bakardade handiagoa sentitzen zuen eta erabat kezkatuta zegoen Platon non eta nola ote zegoen pentsatuz. Momentu batzuetan burua lehertzeaz eduki zuen. Ez zekien beldurrari utzi irabazten, edota bere laguna sal-



Naima Lopetegi

batzeko gogoari. Halako batean, belarrietan piszinarako zituen tapoiak jantzi eta mendira joatea erabaki zuen.

«Zer ote da zarata hori?» pentsatzen zuen behin eta berriz Farak. Menditik zetorren eta bazekien hara joanda jakingo zuela zer gertatzen zen. Bidean, bera baino zaharragoak ziren beste hiru neska-mutil aurkitu zituen, zaratagatik kexu.

—Zer gertatzen zaizu, neska? —galdetu zion batek.

Farak ez zuen entzuten, tapoiak jarrita baitzituen.

—Neskaaa! Zer gertatzen zaizu? —galdetu zioten berriz, oso ozen.

Farak belarriko tapoiak kendu zituen eta, orduan, gertatu zitzaiona azaldu zien. Lagun berriek beren laguntza eskaini zioten eta laurak mendian gora abiatu ziren.

Aldapan gora hasi eta makinak ikusi zituzten mendiko zuhaitzak mozten. Berdin zitzaien handi ala txiki, denak botatzen ari ziren. Zer zen hura? Eskabadorak, inoiz ikusi gabeko makina erraldoiak, Goizargi baserria botatzen. Hango Joxe eta Maria, negarrez. Etxeko zaldi, asto, behi eta ardiak, aztoratuta erabat. Auzotarrak, kexaka... Baina eskabadore tako langileek ez zuten jaramonik egiten. Mendia eta bertakoak desagerrarazi nahi zituzten, kotxeak azkar joateko bidea egiteko.

Hantxe zegoen Platon baserritarren ondoan, langileei zaunkaka. Fara eta bere lagun berriak zakurraren ondora joan ziren eta baserritarrak besarkatu zituzten.


Pixkanaka, herritar gehiago hasi zen gerturatzen eta, minutu gutxitan, jende ugari pilatu zen. Denak protestan, makinei gelditzeko eskatuz.

Makina haien arduradunak, hainbeste jende ikusita, egiten ari zirena bertan behera uzteko agindua eman zuen eta han zegoen jende guztia txaloka hasi zen, pozez.

Farak gutxitan sentitzen zuen zoriontasuna sentitu zuen. Alde batetik, Platon bere laguna ondo zegoelako; bestetik, lagun berriak egin zituelako; eta, azkenik, beste jende bati laguntzea lortu zuelako.

Ordundik, Fara pixka bat aldatu da. Badaki neska aparta dela besteek esan gabe ere.

Jare Millares Esnal



Naroa Allo

Gaztearen bizitza

Ilean haizea,
aurpegian eguzkia,
bihotzean sua.
Gaztea naiz,
bizitza osoa bizitzeko,
mundu osoa ikusteko,
bide guztiak ibiltzeko.
Zer ikusiko dut?
Nora joango naiz?
Sentitu, ikusi, entzun...
Dena da posible
dena posible izango da.

Aitor Alonso Benito

Bizitza

Bizitza, bide luzea.
Abenturaz beterikoa.
Alaitasunez beterikoa.
Tristuraz beterikoa.
Haserrez beterikoa.
Baina bide luze horretan,
zuretzako ezinbestekoak diren gauzak
aukeratu beharko dituzu.
Nik mapa bat beharko dut,
nora joango naizen jakiteko
eta maleta bat ere hartuko nuke
orain arte gertatutako gauza guztiak
nirekin eramateko.

Martina Esnal



Iraia Lozano Mendizabal

Cousilloneko misterioa

Gaueko bederatzi eta erdiak ziren. Madame Lanusse lorategitik paseatzen zebilen. Udaberriko gau ederra zen, ez normalean hilketak egiten direnetakoa. Izarrak ezin hobeto ikusten ziren eta ilargiaren argiak argiztatzen zuen gaua. Inork ez zuen esperoko Pirinioetan galdutako herri txiki batean herriko andre aberatsena hilda aurkitzea putzu batean, bere odolak sortutako putzu batean.

Cousillonera, Pirinioetako herri txiki batera noa. Izan ere, hilketa bat egon da eta niri, Charlotte Seller detektibeari, eskatu didate erruduna aurkitzea. Bost minututan iritsiko naiz eta plazan zain edukiko dut udaletxeko idazkaria niri kasuaren espedientea erakusteko.

Plazara iritsi naizenean, andre bat ikusi dut. Nik beti esaten dut pertsona bat begiratzuz haren ezaugarri asko jakin ditzakezula. Honakoan, adibidez: 1,55 metro altueran, 34 urte gutxi gorabehera, ni bezala, 50 kilo inguru, ile hori gastatua sor-baldetaraino, betaurreko handi borobilak, gitarra jotzen du (behatzetan dituen markengatik), irakurtzea gustatzen zaio (motxilan daramatzan bi liburuengatik) eta Laura izena du (hori erraza izan da: kamisetan idatzita du izena).

Niregana etorri da pausu lotsatiz:

—Zu al zara Charlotte Seller detektibea? —galdetu dit apalki.

—Bai. Zu Laura izango zara, ezta? —galdetu diot.

—Bai, hala da —erantzun dit harrituta, ez baitzuen espero bere izena jakitea.

—Espedientea hemen duzu? —galdetu diot.

—Bai. Atzo gaueko bederatzi eta erdietan hil zen, autopsiak dioenez. Ez zen egon testigurik, dakigula. 45 urte zituen eta bere senarra orain dela hamar urte hil zen istripu batean —informatu dit Laurak—. Lista bat dut hildakoarekin arazoak izan dituzten pertsonekin: okina, alkatetzarako presentatu zen eta galdu; eta Madame Berger, lagun onak ziren, baina bere semearekin harreman sexualak zituela deskubritu zuen.

—Ados —esan diot informazio guztia prozesatzen dudan bitartean—, eta hilketaren tokiari begirada bat bota ahal nioke?

—Bai, noski! Hemendik da —erakutsi dit Laurak.

Herriko plazatik behera dagoen etxe handi bat da: sarrerako ate handi bat, gero pasillo luze bat, eskuinetan komuna eta ezkerretan eskailerak goiko pisura; pasilloan aurrera jarraituta, egongela eta, ezkerrean, sukaldea; sukaldean eta egongelan kristalera bat, lorategi zoragarri batera ematen duena.

—Hemen izan zen, atzo gaueko bederatzi eta erdietan —esan dit, beldur-doinua ahotsean.

—Beste norbait bizi al zen etxean? —galdetu diot Laurari.

—Ez. Senarra hil zenetik bera bakarrik bizi zen —erantzun dit.

Lorategian zehar pista posible bila hasi naiz; lehen begirada botata, lorategi handi eta zoragarri bat dirudi, lore handi eta politekin, baina gauzak inoiz ez dira izaten ematen dutena. Gauza txikiei erreparatu behar zaie. Orduan ikusi dut arrosa bat erdi puskatuta, eta... Aja! Laban handi bat odolez estalia.

—Laura! —oihukatu dut—. Begira, laban bat!

—Bai laban handia, ezta? —konturatu da Laura.

—Halaxe da —onartu dut—. Nire osaba harakina zen eta horrelakoak erabiltzen zituen.

—Harakinak hil duela esaten ari zara? —galdetu dit Laurak.

—Agian... Edo agian, ez —erantzun diot—. Harakinarekin hitz egin behar dut.

—Ados —erantzun dit—. Bihar izan beharko du. Harategia itxia du, jadanik arratsaldeko zortziak baitira.

Ikertzen hasten naizenean, beste guztiaz ahaztu egiten naiz. Herrian dagoen ostatu bakarrera abiatu naiz. Hiru susmagarri ditugu: Madame Berger, harakina eta okina. Bihar hirurekin hitz egitera joango naiz, baina orain lo egin behar dut.

Esnatu naizenean, jantzi, ohea egin eta kafe bat hartu dut. Gaurko eguna inportantea da: ez baditut galdera egokiak egiten eta gauza txikiei ez badiet erreparatzen, ez dut erruduna aurkituko. Hamar minututan plazan geratu naiz Laurarekin. Atsegina da laguntzaile bat edukitzea. Laura lotsatia da, baina kasuari ekarpen handia egin ahal dio. Ostatuko gelatik irten eta plazara abiatu naiz. Herri txikia da eta hiru minututan iritsi naiz. Laura jadanik han dago, banku batean irakurtzen. Bere ondoan eseri naiz.

—Liburu ederra da —komentatu dut—. Bukaera oso ona du.

—Oraingoz asko ari zait gustatzen —esan dit Laurak.

Bat-batean, zerbait sentitu dut, arnastea kostatuko balitzait bezala. Nire bihotza gelditu egin da eta Lauraren betaurrekoek ezkutatzen dituzten begi urdinen itsasoan galdu naiz.

—Prest zaude harakinarekin hitz egiteko? —galdetu dit Laurak.

—Ba, bai! —erantzun diot.

—Segitu niri —erakutsi dit Laurak.

Ez dakit zer ari naizen sentitzen... izerditan hasi naiz bat-batean. Lauragatik sentitzen dudana ez dut inoiz sentitu beste inorengatik.

—Iritsi gara —abisatu dit.

Nire burua kasuan kontzentratzera behartu dut. Harategia ez da oso handia. Barra bat haragiarekin eta sabaitik urdaiazpikoak zintzilik. Atzeko almazenetik gizon handi bat etorri da. 1.85 m eta 90 kg. Bizarra du, baina buruan ile askorik ez. Kamiseta grisa du mantal gorri batekin.

—Egun on! Zer jarriko dizut? —galdetu dit—. Xerra, odolkia, edo... zu beza-lako andereño batek azpizuna nahiko al luke?

—Hau zurea al da? —galdetu diot, motxilatik labana aterata.

—Bai —ziurtatu du—. Non aurkitu duzu? Orain dela bi egun desagertu zitzaidan. Gauean tiraderan sartu nuen eta goizean ez zegoen.

—Madame Lanussen lorategian aurkitu dugu, odolez beteta —jakinarazi diot.

—Ez naiz ni izan! —haserretu da—. Egiatzatu dezaket! Segurtasun-kamerak ditut! Begira, hemen ikusi ahal duzu ni denda ixten, labana mahai gainean utzita, eta, hiru ordu geroago, pertsona bat beltzez jantzita sartu eta labana lapurtzen duela, baina ni baino askoz txikiagoa da.

—Egia —onartu dut—. Zu baino askoz txikiagoa da lapurra. Eskerrik asko eta egun ona izan.

Harategitik atera gara. Erraza izan da. Orain bi susmagarri bakarrik geratzen dira.

—Orain okinarengana joan nahi duzu? —galdetu dit Laurak.

—Noski! Goazen! —erantzun diot.

Bidean, berriz ere, bihotzaren taupadak azkartu zaizkit. Laurarekin bakarrik nagoen bakoitzean gertatzen zait, baina nire sentimenduek ez dute kasuan eragin behar.

—Iritsi gara —abisatu dit Laurak.

Okindegian sartu gara eta han andre bat dago, ogiak labetik ateratzen. Okinak 1.60 m neurtzen du. Grabaziokoa izan daiteke. Ile marroia motots batean jasota dauka eta begi txiki marroiak ditu.

—Kaixo, zerbait behar duzue? —galdetu dit.

—Madame Lanusseri buruz galdera batzuk egitera gatoz —abisatu diot—. Zure ustez, botazioak irabaztea merezi zuen? —galdetu diot zuzenean.

—Ez zituen irabazi —esan dit—. Tranpa egin zuen. Madame Berger-ren semearekin egin zuena eta gero, zeinek eman behar zion botoa?

—Egin zuena eta gero, uste duzu gertatutakoa merezi zuela? —galdetu diot okinari.

—Ni burugogorra eta jenio txarrekoa izango naiz, baina ez nuke hilko Madame Lanusee —ziurtatu dit.

—Frogarik baduzu ez zarela zu izan ziurtatzeko? —galdetu diot.

—Nire senarrarekin eta umeekin egon nintzen gau hartan —esan dit—. Begira! Etorri, Luis! —deitu dio semeari.

—Bai, ama? —galdetu dio semeak amari.

—12ko gauean zer egin genuen? —galdetu dio.

—Makarroiak jan eta Monopolira jolastu ginen —erantzun dio semeak.

—Ongi da —esan diot okinari—. Eskerrik asko.

Okindegitik atera gara. Madame Berger bakarrik falta zaigu. Espero dut denak zentzua edukitzea azkenean.

—Madame Bergerren etxera eramango zaitut orain —esan dit Laurak.

«Kasuan zentratu eta ahaztu Laura» esan diot nire buruari behin eta berriro.

Madame Bergerrena etxe handi bat da, Madame Lanussenaren antzekoa. Txirrina jo du Laurak eta neskame bat azaldu da.

—Madame Bergerrekin hitz egitea gustatuko litzaiguke —esan dio Laurak neskameari.

—Sartu. Orain etorriko da —gonbidatu gaitu.

Saloi handi batera eraman gaitu. Klasikoa da eta polita. Barruan Madame Berger dago. Soineko loredun bat du jantzita. Berak ere 1.60 m inguru ditu. Ile marroi eta ondulatua du.

—Nirekin hitz egin nahi duzue? —galdetu digu.

—Bai. Madame Lanusseri buruz galdera batzuk egitea gustatuko litzaiguke —abisatu diot.

—Noski —esan digu—. Bakarrik esan nahi dut nik ez dudala egin. Oso haserre nengoen harekin, baina txikitatik izan gara lagunak eta ni ez nintzen izango kapaz.

—Ados —esan diot—. Non zinen hilketaren gauean?

—Ohean nengoen. Udaberria da eta polenari alergia diot —esprikatu digu.

—Eskerrik asko —eskertu diot— nire galderei erantzuteagatik.

Etzetik atera garenean, haserre eta urduri sentitu naiz, oraindik ez dakidalako zein den hiltzailea eta ez dugulako beste susmagaririk.

—Badakizu nork hil duen? —galdetu dit Laurak.

—Ez —erantzun diot, hasperen bat botatzen dudana bitartean.

—Etorri nahi duzu nire etxera bazkaltzera eta biak batera erruduna aurkitzen saiatzera? —galdetu dit Laurak.

Momentu horretan nire bihotza gelditu da eta, une batez, ezin izan dut hitz egin.

—Bai, noski! —erantzun diot azkenean.

Lauraren etxea ez da handia, baina oso polita da. Sukaldeko mahaian eseri naiz eta Laurak espagetiak jarri dizkit platerean. Ez naiz konturatu ere egin. Estresatuta nago. Lasaitu egin behar dut. Lasaitzen naizenean, hobeto pentsatzen dut.

—Bon appetit! —esan dit Laurak—. Ondo al zaude?

Erruduna aurkitu behar dut, bestela nire karrera bukatu da. Laurak niregana hurbildu du aulkia. Eskua kopetara eramanean dut buruko mina baitut. Orduan, Laurak eskua hartu dit eta musu eman dit. Nire bihotzak eztanda egin du. Begietara erreparatu diot eta nik musukatu dut.

Arratsaldea batera pasatu dugu eta, ordu pare batez, kasuaz guztiz ahaztu naiz. Guztiz lasaituta egon naiz eta, orduan, besterik gabe, bonbilla piztu da nire buruan.

—Laura! —oihukatu dut pozik—. Deitu susmagarri guztiei! Badakit nor den hiltzailea!


Hiru ordu laurdenean denak bildu gara udaletxean: Madame Berger, okina, harakina, polizia, Laura eta ni.

—Maiatzaren 12an gaueko bederatzi eta erdietan 45 urteko Madame Lanusse bere etxeko lorategian hil zen. Ez zen munduko pertsonarik onena eta bi pertsonekin bereziki arazoak eduki ditu: batetik, harakinarekin, eta, gainera, haren labanarekin hil zuten Madame Lanusse... —hasi naiz.

—Baina ni ez naiz izan eta frogak ditut! —defenditu da harakina.

—Bestetik, okinarekin, Madame Lanussen aurka galdu zituelako hauteskundeak. Gainera, okinaren grabaziotako pertsonaren altuera berdintsua du... —segitu dut.

—Bi gauza: bat, tranpa eginez irabazi zuen eta bi, nire semeak esan zizun zer egin nuen gau hartan! —haserretu da okina.



Enara Iglesias

—Eta Madame Berger, Madame Lanussek bere semearekin sexu-harremanak izan ondoren ez ziolako barkatu... —segitu dut.

—Baina ni gaixo egon nintzen gau hartan! —defenditu da Madame Berger.

—Horregatik zara zu hiltzailea! —salatu dut.

—Ez duzu frogarik! —haserretu da Madame Berger.

—Zure burua salatu duzu! Polenari alergia diozu eta lorategian hil zenuelako gaixotu zinen! —salatu dut Madame Berger—. Polizia, eraman epaiketara!

Horrela, Madame Berger epaiketara eraman dute eta 25 urteko kartzela-kondena jarri diote.

Ordur geroztik, Laurak eta nik detektibe-talde bat osatzen dugu, eta bastante famatuak bihurtu gara Frantzian. Bikotea gara eta Parisen oso pozik bizi gara, izan ere, Cousillonek, Pirinioetan galdutako herriak, nire ametsetako bizitza ekarri dit.

Maddi Etxeberria

Tenplu gorria

Kaixo! Ni Maialen naiz eta ondoan dudan hau nire neba da, Arkaitz. Orain kontatuko dizuedan istorioa gu bioi gertatu zitzaigun abentura bat da.

Nik 10 urte nituela eta Arkaitzek 9, gure ama hil zen eta, handik aurrera, ni Londresen bizi izan nintzen aitona-amonekin. Arkaitz, berriz, aitarekin lurraldez-lurralde ibili zen, maleta zuela etxe bakarra, gure aita arkeologoa baita eta Egiptoko piramideen hieroglifikoak irakurtzen egoten zen egunero. Urtero bezala, Gabonetan aitona-amonen etxean elkartzen ginen, nahiz eta aitona-amonak eta gure aita ez oso ondo moldatu. Orduan hasi zen dena...

Aitona-amonen etxean geunden dena prestatzen: amona eta ni, etxea apaintzen; eta aitona, bazkaria prestatzen, denak iristen zirenerako guztia prest edukitzeko. Ordubete geroago, dena prest genuen, nire katu Muffin hartu eta sofán eseri nintzen. Tinbreak jo zuenean, tximista baino azkarrago joan nintzen atea irekitzera. Atea ireki eta aitari eta Arkaitzi besarkada eta musu handi bana eman nizkien.

Hurrengo egunean Arkaitzek, aita eta ni esnatu, eta haxe proposatu zigun:

—Joango gara Britainiar Museora goiz pasa? Atzo gauean albistegietan azaldu zen eta ezetz asmatu zer dagoen han?

—Ez dakit eta, jakinda ere, seguru ez dakidala zer den ere —erantzun nion nik.

—Egia esan, nik ere ez dut ideiarik ere, baina joan gaitezke liburutegira Osiris eta Horus jainkoei buruz ikastera? —proposatu zuen aitak.

—Nik orain ez dut liburutegira joan nahi. Gainera, Britainiar Museoan Egipto zaharrari buruz gustatuko zaizun gauza bat dago —azaldu zuen Arkaitzek.

Azkenean, Britainiar Museora joan ginen. Arkaitzi maien eta inken gela gustatu zitzaion gehien; niri, berriz, bikingoen gela.

Baina, Egiptoko gelara sartu ginenean, aitari gauza arraro bat otu zitzaion zerbait ikusi zuenean, eta hauxe esan zigun:

—Begira! Hor dagoen harria Rosetta da, eta han dagoen gizon hori Iñigo Arostegi da, Britainiar Museoko zuzendaria.

—Baina, aita, zer da Rosetta harria? —galdetu nion.

—Geroxeago esplikatuko dizuet; baina, aurrena, mesede bat egin behar didazue. Ikusten hango gizon hori? Ba, bere bulegoan giltzaperatu ezazue, eta gero museotik urrutira joan —eskatu zigun aitak.

—Baina zertarako? —galdetu zuen Arkaitzek.

—Hori ere geroxeago esplikatuko dizuet —erantzun zuen aitak.

Hori esan eta alde egin zuen. Gu, noski, gizonarengana joan eta, bi aldiz pentsatu gabe, hauxe galdetu zion Arkaitzek:

—Zer moduz zaude... —orduan, gizonak txaketan zeraman plakan bere izena irakurri eta jarraitu zuen— Pello?

—Ondo. Zergatik? —erantzun zion.

—Zure bulegoko leihotik usoak sartzen ikusi ditudalako —adierazi zion, gezurra esanez.

Hori entzun zuenean, bulegora korrika joan zen eta, sartu zenean, Arkaitzek atea itxi zion eta nik erratzarekin blokeatu nion atea.

Orduan, Arkaitz kanpora abiatu zen, baina nik esan nion:

—Gelditu, zuk beti egiten al diozu kasu aitari?

—Bai, noski... gehienetan. Zergatik? —galdetu zidan.

«Puffffff! Ederra daukagu honekin» pentsatu nuen.

Arkaitzi iletik tira egin eta berriro sartu nuen barrura. Zer gertatzen ari zen ikusi nahi nuen.

Egiptoko gelara iritsi ginenean, aita bakarrik ikusi genuen gelan Rosetta harriaren aurrean. Bat-batean, hitz arraro batzuk esaten hasi zen eta, bukatu zuenean, Egiptoko ikur argidun batzuk atera ziren hegan harritik. Biok harrituta begiratu genion elkarri eta, gero, berriz begiratu aita zegoen lekurantz eta jada ikurrak ez zeuden bertan, baina zerbait argitsua eta gorria hasi zen ateratzen. Seth zen. Biok beldurtuta, paralizatuta, geratu ginen, baina aitaren ahotsa entzun genezakeen mugitu ezinik egonagatik ere, eta aitak hau zioen:

—Zuk zer egiten duzu hemen, nik ez dizut deitu!—oihukatu zuen aitak amorruz.

—Badakit, baina opari bat daukat zuretzat —erantzun zuen Sethek, irri maltzur batekin.

Orduan, kriskitina jo zuen Sethek eta aita lurraren azpitik bat-batean atera zen sarkofago baten barruan erori zen. Sarkofagoa itxi eta etorri zen bezala joan zen.

Seth ere joan egin zen eta Arkaitz eta ni harrituta eta triste geratu ginen, lur jota, zer egin ez genekiela.

Korrika batean Britainiar Museotik atera ginen. Kanpoan, gizon bat ikusi genuen guri begira. Guregana etorri zen eta lasai egoteko esan zigun, gure osaba Benito zela eta berarekin joan behar genuela haren etxera, New Yorkera. Harrituta galdetu nion:

—Baina New Yorkera nola joango gara? Aitak esan zidan ez zenuela dirurik.

—Dirua ez da bidaiatzeko beharrezkoa, Duat erabiltzen baldin badakizu —erantzun zidan.

—Zer da Duat, Benito?—galdetu nion.

—Duat Egiptoko hilen mundua da eta hilen jainkoak kontrolatzen du... Anubisek hain zuzen —erantzun zidan.

—Orain, segi niri! —agindu zuen Benitok.

Eta ibairantz abiatu zen. Han txalupa txiki bat zegoen. Hara sartu ginen eta hau esan zigun:

—Ongi eutsi txalupari, bidaia oso mugitua izango da eta!

Nik mastari eutsi nion eta Arkaitzek niri, justu abiatzera gindoazenean. Bat-batean, urak jan egingo bagintu bezala, leku gris batera sartu ginen, oihuak entzun genituen eta, konturatzerako, New Yorken azaldu ginen.

Industria-lantegi handi baterantz abiatu ginen, txalupatik jaitsita. Lantegia luxuzko etxe erraldoi bihurtu zen. Arkaitz eta ni harritu egin ginen, baina, etxearen inguruan urez betetako foso bat zegoela ikustean, gure harridura handitu egin zen.

Nik, ulertu ezinik, galdetu nion:

—Baina... nola...

Baina Benitok moztu zidan:

—Lasai, hau nire etxea da. Orain etorri nire atzetik.

Fosora hurbildu ginen eta zubi bat agertu zen gure parean. Zubitik pasa eta barrura sartu ginen. Barruan pizina handi bat zegoen eta han krokodilo albino handi bat bueltaka. Besaulki bat ere bazegoen eta han, berriz, tximino bat zegoen telebista ikusten. Ni zerbait esaten hasi nintzen, baina Benitok moztu egin zidan berriro ere, hau esanez:

—Orain, lo egitera joan. Dauzkazuen galderak bihar erantzungo dizkizuet. Arkaitz, zu Jon krokodiloarekin joango zara eta zu, Maialen, Babu tximinoarekin.

Bakoitza gure gelara joan ginen. Nire gelan ohe handi bat zegoen eta han etzan nintzen. Babu nire ondoan etzan zen. Minutu batzuk geroago, lo hartu nuen eta amets arraroak izan nituen.

Hurrengo egunean, telebista ikustera jaitsi nintzen. Seth albisteetan azaldu zen. Egiptora zihoan, Alexandriara. Orduantxe, Benitorekin batera Arkaitz eta Jon jaitsi ziren eta hauxe esan zuen Benitok:

—Gaur Kairoko aireportura joango gara. Horrela, gauza asko argituko dizkizuet. Baina, lehendabizi, zerbait garrantzitsua esan behar dizuet: zuen barruan jainko bana duzue; Isis dago zure barruan, Maialen, eta Horus zurean, Arkaitz.

Hori azaldu ondoren, aireportura abiatu ginen eta Kairora iritsi arte ez genuen hitz bat bera ere egin.

Kairon museo batera joan ginen eta han Benitok eskua eman zigun eta, hitz arraro batzuk esan orduko, bat-batean, beste leku batean azaldu ginen: tenplu antzeko batean. Benitok, berehala, neska batengana eramán gintuen eta hau esan zigun:

—Hau Amanta duzue, zuei borrokan erakutsiko dizue, gero Seth garaitu ahal izateko—eta eliza moduko batera erretiratu zen.

Ni harrituta geratu nintzen berriro ere, ez bainuen nire burua Seth garaitzeko gai ikusten, eta Arkaitz ere ez.

—Nik erakutsiko dizuet zuen botere ikaragarria kontrolatzen, gero botere horrekin borroka egin ahal izateko —azaldu zigun Amantak. Eta, horrela, mugimendu batzuk ikasten hasi ginen.

Hilabete pare bat geroago, dena ikasita genuen eta prest geunden Sethen aurka borroka egiteko. Orduan, Benitori agur esan eta Seth eraikitzen bukatzen ari zen

Tenplu Gorrirantz abiatu ginen hegan. Segituan iritsi ginen tenplura, 50 kilometrotara baitzegoen.

Han pixka bat zelatatu ondoren, konturatu ginen Seth ez zebilela bakarrik: milaka soldadu zituen agindupean. Hori ikusita, isilpean sartu behar izan genuen, txintik atera gabe.

Han zegoen Seth, bere tronuan eserita, aurrean Osirisen sarkofagoa zeukala, gure aita barruan zuela. Amorruez bete nintzen sarkofagoa ikustean eta eraso egin nion bakarrik, neukan indar guztiarekin, baina segituan garaitu ninduen. Ni lurrean ikusita, Arkaitzek eraso zion baina hura ere erraz garaitu zuen. Biok lurrean geunden, minduta, dena odolez beteta, baina ezin genuen hain erraz etsi, zeren tenplua bukatzen bazuen, mundua suntsitu zezakeen. Orduan, biok batera eraso genion gutxien espero zuenean eta lurrera botatzea lortu genuen, baina segituan altxa eta bultzada gogor batekin lurrera bota gintuen eta zera esan zigun:

—Gaixoak! Ez dakizue defendatzen? Zuen amaren antzera, ez duzue ezertarako balio.

—Itxaron... Ezagutzen zenuen gure ama? —galdetu nion nik, amorruren amorruez.


—Bai. Nola ez, ba! Nik hil nuen-eta! —erantzun zidan irribarre maltzur batekin.

Orduan, gu, gure senetik aterata, eraso egin genion. Zer zen jakin gabe ere, suzko bola urdin antzeko batekin errauts bihurtu genuen Seth eta haren tenplua.

Biok, pozik, korrika joan ginen lurrean zegoen sarkofagora eta ireki egin genuen. Han barruan gure aita zegoen, konortetik gabe. Bizkarrean hartu eta Benitoren etxera joan ginen. Benito poz-pozik atera zen korrika patiora. Denoi besarkada eman eta ospitalera joan ginen aita eramatera.

Hori da gure istorioa, eta orain bagoaz, aita zain baitaukagu afaltzeko.

Hodei Gastiain



Joseba Torres

Errefuxiatuak

Zenbat pobrezi, zenbat tristura,
zenbat gatazka eta sute,
gure beharrak kaltetzen doaz
mundu honetan urtez urte.
Nahiz eta ez dugun hau betetzeko
nahiko botererik guk e (ere),
errefuxiatu txiro guztiak
etxeetan nahi nituzke,
haiek bizitzeez disfrutatzeko
eskubidea baitute.

Gure beharrak beti ditugu
haienak baino nahiago,
nola ez dugu errukirikan
eta enpatia gehiago.
Gutxi batzuk ongi bizi gara,
beste asko okerrago;
ez badiegu ezer laguntzen,
haien bizitzak, akabo.
Zorion gutxi, zoritxar asko,
mundua hankaz gora dago.

Batzuen poza, irribarrea,
eta besteen itzala.
Arazo honek premia dauka
konpontzeko berehala.
Gizartearen pentsamendua
ez da batere normala:
hesi zahar hori kendu behar da
handik nola edo hala,
ez dugu ulertzen denok batera
hobeto bizi gerala.

Palestina ta Israelena
ondoren, Siriarena...
hainbeste gerra eta hilketa
guztiz mintzen dit barrena.
Gatazka ez da inondik ere
konponbiderik onena,
suntsipena ta tristura baita
ondorioz dakarrena,
hizketan eta lasaitasunez
konpondu dezagun dena.

Eta guk Orion haien alboan
hau bizitza daukaguna,
nahiz ta ez naizen tipo aberats
dotore eta diruduna.
Nik ez dut behar etxe handi bat
hiruzpalau pisuduna,
luxuek eta diruak ere
badute alde iluna,
familia ta maitasuna da
gure zoriontasuna.

Amaiur Sukia

Mendia eta ni

Nire parean dago mendia,
bere poztasun betearekin,
eta hango poztasunarekin arratsaldero,
konparatu egiten naiz.

Zelai batean lorea ikusten dut,
emozioz beteriko petaloekin,
indarrez beteriko hostoekin,
eta amaigabeko askatasunarekin.

Gero neure burua ikusten dut,
penaz beteriko pentsamenduekin,
ahultasunez beteriko eskuekin
eta askatasun faltarekin.

Nire parean dago mendia,
bere poztasun betearekin,
eta hango poztasunarekin arratsaldero,
konparatu egiten naiz.

Zuhaitz batean txoria ikusten dut,
lumaje bizi batekin,
hego indartsu batzuekin,
hegan egiteko prest, askatasunarekin.

Gero neure burua ikusten dut,
azal zurbilarekin,
hanka ahulekin
eta kaiola batean...
askatasunik gabeko bizitzarekin.

Luis Pikabea



Hodei Gastiain Gurrutxaga

Naizen bezalakoa naiz, nahi dudalako

Bazen mutil bat, Beñat izenekoa. Beñat mutiko ausart eta lotsagabea zen, bere pentsamenduak aldatu ziren arte.

Kotxeekin jolastea eta praka eta alkandorekin janzteak gustuko zuen Beñatek lehen. Helduago egiten ari zen heinean, bere pentsatzeko era eta sentimenduak aldatzen hasi ziren pixkanaka. Horregatik, orain dela ez asko, gonekin, soinekoekin, kamiseta motzekin... janzteak du gogoko.

Ordura arte, guztia bikain zihoan, mutiko ausarta baitzen. Hain ausarta zen, non, egun batean, lotsarik gabe, ikastolara gona motz batekin joatea erabaki zuen.


Mutiko ausarta zen, ordura arte.

Ikastolara iritsi orduko, ikaskideek begirada maltzurak bota zizkioten eta txistuka, barre eginez eta hitz itsusien artean hartu zuten. Beñat, lotsa-lotsa eginda, negarrez hasi zen eta irakasleari esatea eta laguntza eskatzea erabaki zuen. Irakasleak, laguntzeko partez, burla egin zion ikaskideen antzera:

—Baina, baina... Nola onartuko dugu mutil bat gona batekin jantzita etortzea! Onartezina da! —hitz horiek eta beste hainbat esan zizkion eta Beñat irakasle-gelatik erretiratu zen, erabat etsita. Komunean sartu eta han geratu zen, kisketa emanda, negar batean.

Bakarrik zegoen, baina ikaskide eta irakasleen hitzak buruan bueltaka zituen. Mukizapiak agorturik, beherantz begiratu eta hankak dardaka zituela ikusi zuen eta eskuak malkoz bustita. Begiak irekita zituen, baina iluntasuna baizik ez zuen ikusten. Etxerantz abiatzea erabaki zuen, ziztu bizian, atzetik zuen itzal horren aurretik. Etxera iritsitakoan, gurasoek galdetu zioten, malkoak masailean behera irristaka ikusi zutenean, ea zer gertatzen zen, eta Beñatek guztia kontatu zien. Gurasoek, lagundu beharrean, besteen alde jarri eta Beñaten iritziaren kontra joan ziren.

Beñatek erabaki garrantzitsu bat hartu zuen. Bihotzean min zuen eta gorputzeko presio hura sentituz eta inguruko guztia ahazturik, maletak egin eta etxetik urrun joatea erabaki zuen. Bidean, zer egin ez zekiela, neska bat aurkitu zuen txoko batean negarrez. Elkarri begiratu zioten eta, ondoren, hitz egiten hasi ziren ea zein zen bere malko haien arrazoa. Hitz egin ondoren, neska haren lokal batera iritsi ziren berriketan. Bat maletekin eta bestea klinexak zintzilik zituela. Biak hain gaizki zeudenez eta horren identifikatuta sentitzen zirenez, lokal hartan bizitzen geratzea erabaki zuten eta elkarri laguntzea. Ingurukoei kasu egin gabe, beren bidea egin eta gustuko zituzten gauzei eta ametsei jarraitzea erabaki zuten.



Laia Bergara Pamies

Horren guztiaren ondorioz, mezu bat bidali nahiko nieke irakurle guztiei: Ez utzi inoiz gustuko duzun zerbait albo batera norbaiten aginduz. Jarraitu zure bidea, zure ametsak, gustuko dituzun gauzak, ingurukoei kasu egin gabe. Bakoitza den bezalakoa da, hala nahi duelako eta elkar errespetatu behar dugu! Espero dut, gertakizun txiki honen ondoriozko mezua baliagarria izatea zuetako irakurle bakoitzarentzat.

Intza Beldarrain

Nire errealitate berria

2007-12-05

Kaixo. Ni Maria naiz eta 17 urte ditut. Ez dut familiarik, ezta lagunik ere. Zoritxarrez, nire gurasoak 5 urte nituela hil ziren, bonba baten eztandarekin. Mexiko hiriko umezurztegi batean bizi naiz. Niretzat gela txiki ia huts bat dut, ohe bat eta armairu bakarrarekin. A, bai! Gauza bat ahaztu zait esatea... itsua naiz eta ni bezalako batentzat bizitza ez da batere erraza. 18 urte betetzen ditudanean, umezurztegitik irten eta joan egingo naiz, lan bat bilatuko dut, apartamentu bat eta...

Ez dut dirurik, baina zerbait lortu dezaket, saiatzen banaiz. Izan ere, gure aitak txikitan esaten zidan bezala: Nahi baduzu eta saiatzen bazara, lortu dezakezu. Baina nire egoera ikusita, zaila!

2007-12-07

Hemendik bi astera egingo ditut 18 urte eta eguna iristeko irrikaz nago. Gainera, nire zaintzaileak, Teresak, oparitxo bat duela niretzat esan dit. Ez dakit zer izango den, baina esan dit nire gurasoekin zerikusia duen zerbait dela eta ahozabalik geldituko naizela.

2007-12-21

Gaur da eguna! Gosari berezia prestatu didate eta jangela apaindu dugu. Maleta prestatu dut eta dena prest daukat! Baina urduri nago joateko, mundu zabalera ateratzeko, errealitatea ezagutzeko...

Teresak jada eman dit oparia eta zabaldu dut. Giltza bat eta papertxo bat da. Teresak esan dit txineraz idatzita dagoela. Ez dakit zertarako balio duten, baina... zerbaitetarako izango dira, ezta?



Elene Rekalde Uranga

Oharrean zerbait dago idatzita, txineraz, eta ez Teresak eta ez nik ez dugu ezer ulertzen. Nik, gainera, ezin ditut letrak irakurri ere. Poltsikoan sartuko dut eta, momentua iristen denean, norbaiti galdetuko diot.

Agurrak ez zaizkit batere gustatzen eta, gainera, oso zaila egiten zait asko maite dudan jendeari agur esatea. Ostatu batean lo egitea pentsatu dut, Teresak diru pixka bat eman baitit opari moduan.

2007-12-22

Ostatuan egin dut lo eta gaur lan bila hasiko naiz. Fruta-dendaren batean egin nahiko nuke lan. Mexiko handia da eta horrelako denda asko daude. Ostatuko arduradunak esan dit aterpetxearen aurrean fruta-denda bat dagoela eta hor galdetuko dut ea langileak behar dituzten.

—Kaixo! Maria naiz eta hemen lan egin nahiko nuke —proposatu diot, adeitasunez.

—Ez, ez dugu behar langilerik, eta gutxiago zu bezalako norbait —erantzun dit bortitz.

Joan egin naiz, arazorik izan nahi ez dudalako horrelako jende burugabearekin. Baina ez zait ongi iruditu bere erantzuna...

Beste fruta-dendaren batera bidean, neska baten kontra talka egin dut eta gauzak erori zaizkio. Laguntzen saiatu naiz, baina ezin izan ditut gauzak bilatu.

—Sentitzen dut, nahi gabe izan da! —esan diot, barkamena eskatuz.

—Lasai. Errua nirea izan da, presaka eta korrika ibiltzeagatik eta aurrera ez begiratzeagatik —erantzun dit ahots goxo batek.

—Maria naiz —esan diot eta eskua eskaini diot. Dardarka nagoela igarri dut.

—Ni Itsaso naiz —bota dit, adeitsu.

Orduan, besotik heldu dit eta nire norabide bererantz joaten hasi da. Nik oraindik eta dardara handiagoa sentitu dut gorputzean, eta oso arraroa egin zait. Ea lagunik edo laguntzailerik banuen galdetu dit, eta ezetz erantzun diot. Ezustean, galdetu dit ea nire laguntzailea izan daitekeen. Ez dudala dirurik eta lan bila nabilela erantzun diot, baina berak esan dit ez duela dirurik behar eta bere izeba batek langileak behar dituela lora-denda baterako. Nik, jakina, baietz esan diot, nahasmenez, eta, horrela, lagun bat eta lana lortu dut!

2007-12-23

Gaur Itsasorekin egin dut lo, haren etxean. Nire laneko lehen eguna da eta Itsasorekin noa, berak ere hor egiten baitu lan. Bere izeba aurkeztu dit eta oso atsegina izan da nirekin: orkidea bat eta guzti oparitu dit. Ni landare eta zuhaitzak ureztatzeaz arduratzen naiz, eta gustatzen zait, hainbat usain desberdin daude-eta.



Uxue Etxeberria

Gaur lanera joan gara elkarrekin eta berari galdetzea erabaki dut ea ba al dakien txineraz:

—Itsaso, ba al dakizu txineraz? —galdetu diot bat-batean.

—Nik ez, baina nire izebak bai! —erantzun dit harrituta—. Zergatik?

—Ez, gurasoek papertxo bat utzi zidatelako hil zirenean eta lehengoan ireki nuen oparia, nire urteak baitziren, eta nire lehengo laguntzaileak esan zidan txineraz idatzita dagoela eta horregatik.

—Zorionak, Maria, lehengokoaren partez, eta sentitzen dut zure gurasoena —esan dit, tristuraz.

—Lasai, Itsaso. Ni oso txikia nintzen gertatu zenean eta ez naiz ia ezertaz gogoratzten —erantzun diot lurrera begira jarritz burua.

Bere izebari papertxoa erakutsi diot, eta helbide bat dela esan dit. Izebak esan dit hemendik nahiko gertu dagoela eta, lana bukatutakoan, joan gaitezkeela. Nire istorio guztia kontatu diet, hasieratik bukaerara, eta oso harrituta gelditu dira. Oso ausarta naizela esan didate. Nik ez dut uste, baina bakoitzak bere ustea du. Nire istorioarekin batera, lana ere bukatu da eta, papertxoa hartuta, helbidea bilatzera joan gara.

Pelikuletako luxuzko etxe horietako batekin topatu gara. Nahastu egin garela pentsatu dut, baina ez! Giltzarekin atea ireki da, eta ni harrituta gelditu naiz. Sarrerako ate handiaren aurrean andre bat dago.

—Emmm... Barkatu... Ba al dakizu norena den etxe hau? —galdetu diot.


—Zurea —esan dit, besarkada handi bat emanez. Pentsatu dut nire gurasoak ezagutzen zituela.

Sarrerako andreak kontatu dit nire gurasoak FBIko agenteak zirela eta hil ziren egunean misio batean zeudela. Berek bazekiten biak hilko zirela eta, horregatik, utzi zizkieten giltza eta ohartxoa Teresari.

—Maria? —galdetu dit andreak.

—Bai? —erantzun nion negar egiteko zorian, malkoak eskuekin lehortuz.

—Maria, zure gurasoak oso pertsona ausartak eta zintzoak izan ziren. Beren bizitza eman zuten beste pertsonena salbatzeko. FBIko agente ez-sekretuek hainbat fan eta jarraitzaile edukitzen dituzte, heroi moduan tratatzen dituztenak, baina mundu hau, zoritxarrez, ez da arrosa kolorekoa eta zure gurasoek edo haien antzeko lana egiten dutenek ezin dute beren lana argitara eraman. Beraz, ez daukate besteen moduko babesik eta FBIko beste agenteek fan asko dituzten beza-



Britney Coon Andrews

la, berek etsaiak zituzten, eta, kasu hartan, ezin izan zuten aurrera jarraitu eta hantxe geratu ziren, guztiz suntsituta, guztiz deseginda, ohorerik gabe hilda... —esan du andreak, negar-zotinka.

—A, bai! Ni Frantseska naiz, zure eta zure gurasoen aurreko zerbitzaria. Ez dakit inoiz esan dizun norbaitek, baina zure amaren antz handia duzu —esan du, malkoak lehortuz—. Orain, zu zara luxuzko etxe honen jabea eta dirua ere soberan duzu —gehitu du andreak.

Ni, hori guztia entzun eta gero, ez naiz gai izan ezer erantzuteko. Gehiegi da niretzat eta ezinezkoa zait hori guztia jasatea. Handik korrika alde egiteko gogoia sartu zait, buila egitekoa...

Orduan eskailerak aurkitu ditut, nola hala, eta bigarren solairura igo nahiz ahalik azkarren, nire burua leiho batetik botatzeko asmoz. Ezin dut hori soportatu, gehiegi da. Baina, orduan, pasillotik pasatzerakoan, gurasoen arimak sentitu ditut nigana hurbiltzen. Orduan jakin dut non dagoen nire lekua: etxe honetan. Bat-batean sorbaldan izerditutako esku umel batek ukitu nau, eta konturatu naiz Itsaso zela, negar zotinka. Esan dit ez dudala merezi nire bizitza horrela amaitzerik eta merezi duela hemen jarraitzeak. Barkamena eskatu diot eta besarkada eman diogu elkarri.

Eta orain hementxe nago, 15 urte geroago, nire gaztetako egunerokoa irakurtzen, Itsasorekin batera.

Klara Puertas



June Dorronsoro Rubio

2020

2020 urte hau existituko ez balitz, hobe.
Ez dakit urterik garrantzitsuena izango zinen,
baina beti gogoratua izango zara fama onik gabe;
gauza on batzuk ekartzeaz aparte,
txarrak gehiago daude.

Ez gaituzu denok akabatu, denok elkartuta baikaude;
bizidun askorekin akabatzeaz gustura bazaude,
agur eta ikusi arte!

Guk ere badugu urte katastrofiko honen erruaren zati handia,
guk egindako gauza txarrak beste bati kulpa bota...
Egin dezagun gogoeta pixka bat,
eta bizi gaitezen denak gustura.

Unai Lertxundi

Txakurra negarrez dabil

Txakurra negarrez ari da.
Txakurra negarrez ari da.
Txakurra eta emaztea ezkontzako oihal zurietan.
Nahi gabe galdu dute ezkontza-lepokoaren bihotz itxurako txapa.
Ai, berunezko txapa! Oi, berunezko txapa!
Jenderik gabeko zeru handia,
eraman zure globoa hegaztiengana.
Eguzkia, kapitain borobila,
satinezko txalekoa darama.
Begira zenbat urte dituzten!
Zenbat urte dituzten txakurrek!
Ai, nola negar eta negar egiten duten.
Ai, ai, nola ari diren negarrez!

Mikel Genova



Jafeth Soriano

Aspaldiko izaki bitxia

Nekane gaixoa gauero geratzen zen leihotik basora begira, aita noiz etorriko zain. Amak bere besaulkian pasatzen zuen denbora, mugitu gabe, isil-isilik. Gure neskatoa beti ari zen aitari buruz hitz egiten, pentsatzen, amesten... eta, handitu zenean, mendi eta basoetara joatea erabaki zuen. Horrela egiten zuen ia egunero, eta batzuetan egunak eta asteak pasatzen zituen han aitaren bila.

Nekane txikia zenean joan zen aita, bere ikerketarekin jarraitzeko, etxean oso zaila zela eta. Munstroen inguruko ikerketa bat ari zen egiten, eta, esaten zuena egia zela frogatzeko, ikertzen pasatzen zuen denbora pila bat. Guztiz zoratu zen arte.

Esaten dute hainbeste ikertu, idatzi, irakurri, begiratu... zuela munstroei buruz, azkenean aurkitu egin zuela bila zebilena: konturatu zen bera zela munstroa!

Orain, lehen gizon zen hura mendi hauetatik ibiltzen da jateko bila, eta horregatik jende asko ez da itzuli herrira.

Horrela bukatu zuen istorioa Manuk. Denak beldurturik ginen, sutondoan guztiak elkaturik, gauaren hotsa tentuz entzunez. Denok ezagutzen genuen istorio hura, baina entzuten genuen aldiro beldurtzen ginen, eta gau hartan, mendi inguruko basoan ginela, ikaragarri gehiago. Ilargi, ordea, lasai zegoen, nire besoetan adi-adi Manuri begira. Ez dakit ulertuko zuen, baina ez zirudien ipuinak beldurtu zuenik.

Ilargi betea ageri zen zeru erdian eta, nahiz eta zuhaitz batzuk eduki atzealdean, zelai eder bat genuen aurrean, mendi puntara iristen zen zelai ipurtargitsua.

—Bai, nik lehengoan ikusi nuen neska gazte hura kotxean herrira sartzen —esan zuen Kepak, seguru baina larrituta.

—Zer izan da zarata hori? —galdetu zuen Bartolok, beldurrak jota.

—Lasai, hosto bat besterik ez —erantzun nion nik, pixka bat lasaitzeko eta Ilargi ez beldurtzeko, nahiz eta ni ere oso beldurtuta egon.

—Bai, lasaitu, ipuin bat besterik ez da —lagundu zidan Jonek.

—Ondo da. Goazen lotara, orduan —Kepak nekatuta zirudien.

—Bai, hori da! Egin lo, munstroa etortzeko! —jarraitu zuen istorioarekin Manuk.

—Ez dago munstrorik! Lasai sartu zuen zakuetan eta goazen lo egitera —jarraitu nuen.



Saioa Basurko Arrieta

Azkenean, lasaitu ginen, sua itzali, eta denak zakuan etzan ginen. Gaueko eta basoko soinuekin lokartu nintzen: haize fina, hostoak dantzan, xomorroen kantua...

Bat-batean oihu bat entzun nuen. Keparena zen. Azkar batean altxatu ginen guztiak. Ez nekien zeri begiratu. Ez nuen ezer ikusten. Ez zen isiltzen, eta ez nekien zer egin. Ilargi besoetan hartu nuen babesteko, baina ez nekien zertaz babestu... seguru asko, armiarma txiki bat soilik izango zen.

—AAAAAAAAAAA! Lagundu! Hozka egin dit! Ezin naiz mugitu! AAAAAA!
—min handiarekin egiten zuen garrasi Kepak.

—Baina, baina... Zer gertatzen da? Zer gertatu zaizu? Zerk egin dizu hozka?
—galdetu zion Jarek.

—AAAAAAAAAAAA! Ai, amaaaa! Zer da hori? —ez dakit zer ikusi zuen, baina Manu izugarri ikaratu zen.

—Zer, zer, zer? —beste guztiok ez genekien zer egin.

—Korri! Goazen hemendik! —garrasika jarraitzen zuen Manuk.


—Ezin naiz mugitu! Lagundu! —Kepak oso itxura txarra zuen.

Dena jaso genuen eta korrika hasi ginen, Kepari lagunduz. Ordura arte ez nuen deus ere ikusi, baina bat-batean, zerbaitek iletik tira egiten zidala nabaritu nuen. Atzera begiratu eta itzal beltz bat ikusi nuen, baina oso azkar. Jarek joateko kasu egin zidanean, berriz begiratu nuen, eta jada ez zegoen itzalik.

Gauza guztiak hartu, jaso, eta korrika joan ginen mendi puntarantz Kepari lagunduz. Zelai hartan belar luzea zegoen, eta ez zen oso ondo ikusten.

Azkenean, iritsi ginen puntara. Hango eserleku batean jarri genuen Kepa eta hanka begiratu genion linternarekin. Mantxa beltz handi bat zeukan. Inoiz ez nuen horrelakorik ikusi. Ezin zuen ezta pixka bat mugitu ere. Izugarrizko mina ematen zion. Zer ikusi zuten galdetu genien Manu eta Kepari, eta esan ziguten animalia zikin, beltz eta itsusi bat zela, baina oso azkarra, eta segituan joan zela. Kepak kontatu zigun bat-batean esnatu zela zerbait hotza eta biguna nabaritzen zuela bere oinetik hankaraino eta, hanka kendu behar zuenean, hozka egin ziola. Minaren minez oihuka hasi zela, baina, besteak esnatzean, begi bistatik galdu zuela animalia hura.

Denok beldurtu ginen. Mugikorrak ez zuen egiten. Ez genekien zer zen hura, non zegoen, zergatik etorri zen, nola lagundu Kepari... Ez genekien ezer. Alde guztietara begiratu genuen, eta jada ez genuenean ezer arrarorik ikusten, lasaitu, zakua jarri eta eserita geratu ginen, adi-adi, denak elkarren ondoan. Eskerrak nire ahizpatxo ilargi lo zegoen, bestela beldurtu eta ez dakit zer egingo genuen. Kepari



Itxaso Ayerbe Cisneros

tela bat urez busti eta hankan jarri genion, sendatzeko esperantzaz. Hobeto zegoela zirudien. Pixka bat deskantsatu zuen, baina hankak oraindik itxura txarra zuen eta ezin zuen mugitu.

Nahi gabe, guztiok erdi lo geratu ginen, baina zarata bat entzun genuen eta bizkor-bizkor altxatu ginen begiratzera. Argi bat ere nabaritzen zen basoaren iskin batean. Ondo begiratu eta auto bat zela konturatu ginen. Eskerrak! Azkenean norbaitek lagunduko zigun!

Motxilak hartu genituen eta nik Ilargi ere bai. Besteek Kepari lagundu zioten eta ahal genuen azkarren jaitsi ginen zelaitik behera.

Eskerrak errepidea ez zegoela urrun, nekatuta iritsi baikinaren eramaten ari ginen zamarekin. Argiak ikusi genituen eta errepide erdian jarri ginen gu ikusteko. Kotxea gelditu eta harengana joan ginen. Neska gazte bat zen, eta bakarrik zihoan. Kepa min hartuta ikusi zuenean, azkar hurbildu zitzaigun eta hanka begiratu zion.

—Ai, ene! Mugitu dezakezu? —galdetu zion Kepa gaixoari.

—Ez. Orain gehiago gogortu zaidala uste dut, eta ez dut ia ezer sentitzen, mina bakarrik —esan zuen Kepak.

—Non daude zuen gurasoak? —galde egin zigun denoi.

—Herrian. Mendian egin nahi genuen lo izarren azpian, sutondoan. Badakizu... lagunekin udarako plan bat besterik ez genuen nahi —adierazi zion Jonek.

—Eramango gaituzu etxera? —galdetu zion Bartolok.

—Ezin dut. Oso arriskutsua da orain mendi hauetan ibiltzea. Bihar eramango zaituztet, baina orain igo kotxera. Lasai, leku seguru batera eramango zaituztet.

Pixka bat urrundu eta lagunekin hitz egin nuen:

—Ez dakit, ez dugu ezagutzen... Agian, zerbait txarra egingo digu.

—Baina laguntza behar dugu, eta Kepak gehiago. Berak jakingo du zer egin.

—Bai, guk ezingo genuke herriraino berriz ere oinez joan, Kepa eta Ilargi besotan hartuta. Eta, gainera, animalia bitxi hori hemendik dabil.

—Ondo da, goazen berarekin.

—Ados! Eraman gaitzazu zure leku segurura, mesedez —esan genion.

—Igo autora eta jarri eroso, bidea nahiko luzea da—eta —esan zuen, eta martxan hasi zen. Ibilgailua oso handia zen, eta baita eroso ere. Bartolok eta beste lagunek ia lo hartu zuten, baina nik ezin nuen hain lasai egon.



Juan Parada

—Barkatu! Nire izena Nekane da. Agian, entzungo zenuten nire aitaren istorioa, baina ez kezkatu, ez da munstroa. Bakarrik egotea gustatzen zaio, eta bere lanean jarraitzeagatik jendeak munstro deitzen dio. Ai, ene...

—Aurkitu zenuen zure aita? —galdetu zion Kepak.

—Bai, segituan aurkitu nuen: etxe bat egin zuen basoaren eta itsasoaren artean, hondartza sekretu baten ondoan. Handik primeran ikusten du ura, eta bere itsasontzian gehiago ikertu dezake. Egunero joaten natzaio bisitan, janariarekin, eta konpainia egitera. Asko gustatzen zait berarekin egotea eta hitz egitea. Gauza asko dakizki, eta bere ikerketa oso interesgarria iruditzen zait.

—Bueno, barkatu... Asko hitz egiten dut. Lasai utziko zaituztet deskantsatzen, eta gero kontatuko didazue gertatutako guztia.

Azkenean, iritsi ginen etxe hartara, motxila guztiak hartu genituen eta ate ondora hurbildu ginen. Nekane ate ireki eta «Aita, iritsi naz!» deitu zuen, baina ez zen erantzunik entzun. Neska, kezkatuta, etxean barrena hasi zen ibiltzen, gelatik gelara. Azkenean, gela batera sartu zen eta garrasi bat entzun genuen. Beldurtuta, pixkanaka hurbildu ginen ate ondora eta lurrian belauniko negarrez ikusi genuen Nekane. Gehiago hurbildu eta, orduan, gizon bat ikusi genuen, lurrian etzanda, geldi, zuri. Konturatu nintzen hilda zegoela, eta Kepak bezalako mantxa ilunak zituen gorputz osoan, baina handiena eta ilunena lepoan zuen. Ilargik lo jarraitzen zuen nire besoetan, eta buelta eman nion badaezpada ere, hura ez ikusteko.

Nekane oso triste zirudien. Bere aita izango zen. Besarkada bat eman zion eta haren ondoan jarraitu zuen. Geroago, azkar ingurura begiratu eta leiho bat irekita zegoela ikusi zuen. Begiratu eta han ere likido likatsu beltz bat zegoen. Azkar itxi zuen eta etxeko beste leiho eta ate guztiakin gauza bera egin zuen. Lasai egoteko esan zigun, besaulkian esertzeko edo, berak denbora pixka bat behar zuela bere aitarekin. Esan bezala itxaron genuen eta, denbora pixka baten ostean, berriro bueltatu zen. Kepari krema berezi batzuekin hanka sendatzen zion bitartean, dena kontatu zigun:

—Lehen munstro ilun batek egin dizu hozka, ezta? Ba, munstro hori zen nire aita ikertzen ari zena. Duela zazpi urte itsasontzi batek istripua izan zuen. Itsasontzian laborategi bat zegoen, substantzia kimikoz betea. Denek uste zuten itsasontzi hura hondoratu egin zela, baina nire aitak deskubritu zuen irla oso txiki eta ia ikusten ez den batean geratu zela. Hara joan zen. Hango hondakin eta zakar guztiak nahastuta zeuden, eta nahaste horren guztiaren zati oso txiki bat hartu zuen ondo aztertzeko. Konturatu zen, ez dakit oso ondo nola, izaki bizidun berri bat sortu zela petrolio eta hondakin guztien artean. Uste dut izaki hori itsasotik hona iritsi dela eta bere lehenengo biktima nire aita izan dela. Itsasotik gertuen zegoen animalia. Gero zuengana joan da. Oraindik txikia denez, erraz beldurtzen da. Asko zinetela ikusiko zuen eta alde egin duela dirudi, baina gizakiak gustuko ditu eta oso

usaimen ona dauka; hortaz, kanpoan bagina, segituan hurbilduko litzateke. Litekeena da handituz joatea, oso azkar handitzen dela esan zidan-eta aitak.

—Baina, orduan, zer egin behar dugu? —galde egin zuen Jonek.

—Etxera sartu daiteke munstro beldurgarri hori? —galde egin zuen Bartolok, beldurtuta.

—Ez, lasai! Dena itxita dago, eta denok elkarrekin gaude. Ez zaigu ezer pasatuko —lasaitu zuen Nekanek.

—Ahal dugun lasaien egongo gara. Lotarako gela asko daude eta bihar ikusiko dugu zer egin, ados? —Nekaneren ideia.

—Ondo da — denak ginen ados.

—Ba, korridorean daude gelak; nahi duzuenean geratu. Ni nire gelan egongo naiz zerbait behar baduzue —Nekanek «ondo lo egin» esan eta bere gelara sartu zen.

Ni eta Ilargi gela batean jarri ginen, Jone, Manu eta Jare beste batean eta Kepa eta Bartolo azkenengoan. Ilargirekin ohe berean egin nuen lo. Ezin nuen pentsatu zer izango zen zerbait gertatuko balitzaio ahizpa txikiari. Leihora begira geratu nintzen denbora luzez, itzalak kontrolatzeko.

Lo hartu behar nuenean, ordea, zerbait entzun nuen. Altxa, eta korridorean zehar joan nintzen. Lehenengo atea ireki nuen: Jone, Manu eta Jare lo seko zeuden eta, hortaz, hurrengora jo nuen. Bartolo eta Kepa ohean ziren, baina dardarka beldurragatik. Azkenik, Nekaneren gelara hurbildu eta bai, han zegoen, baina negar batean. Oso normala iruditzen zait, ez dakit zer egingo nukeen nire aitarik gabe; nahiko nukeen nirearekin egon momentu hartan. Berriz ere nire gelara joan nintzen, poliki-poliki, zaratarik ez egiteko.

Atea ireki behar nuenean, oihu bat entzun nuen, nire ahizparena!

Korrika sartu nintzen eta han zegoen munstroa, nire txikiaren besoan itsatsita. Ilargi mugitzen zen, baina munstroa ez. Korrika, gertu zegoen makila bat hartu eta danba! eman nion. Lurrera erori zen, baina berriro zetorrela zirudien. Hortaz, berriro eman nion, eta oraingoan leihotik bota nuen. Berriz saiatu zen igotzen, baina berriz ere eman nion eta leihoa itxi nuen. Korrika, Ilargi hartu nuen eta, biok besarkatuta, negarrez geratu ginen segundo batzuetan. Nire bizitzako momentu gogorrenetakoa izan zen. Nekanerengana eraman nuen ahizpa, dena kontatu nion, eta hark laster batean jarri zion krema.

Ilargiri laster sendatu zitzaion ubeldua, baina ezin genuen ahaztu gertatutakoa. Jone eta Manuren gelara joan ginen eta Nekane lasai utzi genuen. Pixka bat lasaitu ginenean, berriz ere zerbait entzun nuen. Denei esan nien eta hotsa entzuten zen

lekura joan ginen. Orduan Bartolo eta Kepa entzun ziren; inoiz baino beldurtuago ematen zuten. Nekane korrika hasi zen, baina, haien gelan sartu ginenerako, jada munstroa han zen. Bartolorengana zihoan eta Kepak ezin zuen ia mugitu. Nik lehengoko makila Nekaneri pasa nion, eta hark izugarrizko kolpea eman zion munstroari, baina munstroa asko handitu zen eta indartsuagoa zen. Jarek aterki bat hartu eta beste kolpe bat eman zion, baina aterkian pegatu zen eta Jarerengana hasi zen gerturatzen. Eskerrak Nekanek kendu zion eta lurrera erori zen. Oso indartsua zen, denengana zetorren. Ilargik esan zidan nonbait ezkutatu beharko genuela. Horregatik, korrika joan ginen egongelara, baina munstroa gure atzetik zihoan, gu baino askoz azkarragoa zen eta harrapatu egingo gintuen. Korridorearen amaieran ate bat zegoen eta, nire ahalegin guztiekin, atea pasatu nuen eta ziztu bizian itxi. Munstroa atearen beste aldean geratu zen, baina, indarka zebilenez, aulki bat jarri genion ez irteteko. Egongelara iritsi ginen. Pixka bat begiratu eta segituan ikusi genuen kutxa bat. Ez genekien balioko zuen ala ez, kartoizkoa baitzen, baina hartu egin genuen. Buelatu egin behar ginen, baina nola?

Kanpoko atea irekitzen saiatu nintzen, gero leihotik sartzeko, baina giltzaz itxita zegoen, eta ez geneukan denborarik. Denen oihuak entzuten genituen. Hara bueltatu behar genuen, nola edo hala. Etxetik barrena korrika genbiltzan irtenbideren bat topatzeko. Nola ez gara konturatu? Leiho batetik irten eta kito! Atera eta ziztu bizian joan ginen gela haren leihora. Ez zen ezer ikusten, eta are gehiago urduritu nintzen. Hurrengo gelan begiratu nuen eta hartan ere, ezer ez. Leihoak jotzen hasi nintzen, gero eta zarata handiagoa ateraz, baina ez zirudien inork entzuten zigunik. Orain bai ezin genuela ezer egin: egongelako leihoa itxi egin genuen, eta ezin ginen inola ere sartu. Garrasika eta kolpeka jarraitu nuen. Ezin nuen gehiago. Lurrera begiratu eta harri handi bat ikusi nuen. Hori da, kristala puskatu behar genuen!

Danba eman nion lehioari, baina ez zen ezta pitzadurarik txikiena ere sortu. Berriro eman, eta gauza bera. Azkenean, pixka-pixka bat pitzatzea lortu nuen! Etxe hura oso babestuta zegoen, baina lortu egin behar nuen. Kristal-kapa bat puskatu zen, eta beste bat soilik geratzen zen. Eskerrak! Azkenean, lortu genuen puskatzea. Ilargi hartu nuen besoetan, ea zerbait ikusten zuen. Denak gelan zirela esan zuen, baina munstroa ezetz. Hortaz, Ilargi sartu nuen lehenengo eta gero neu sartu nintzen. Egia zen: gure lagun denak zeuden han, baina Nekane ez. Ez zuten batere itxura ona. Bueno, Bartolo eta Kepa hobeto zeuden. Horregatik, nirekin etortzeko esan nien eta Ilargi Jare, Jone eta Manurekin utzi nuen. Korridorera begiratu genuen: ez zegoen inor. Nekaneren gelan zeuden, eta Nekane oso ahul zegoen, hil egingo zen! Zerbait egin behar genuen. Munstroak ikusi eta niregana etorri zen ziztu bizian. Beste bi mutilak urrundu egin ziren, baina munstroagandik gertu jarraitzen zuten. Keinu bat egin eta kutxa bota nien. Indarrez, munstroa harrapatu zuten. Izugarri hasi zen mugitzen, kartoizko kutxa puskatzen eta biguntzen hasi zen. Nekanek esan zigun bere aitak edukiko zuela kutxaren bat



Nora Veiga Morales

munstroa harrapatzeko. Korrika bueltatu ginen egongelara eta kaiola bat ikusi genuen. Kaiolan hasi ginen munstroa sartzen, baina izugarrizko mina ematen zuen ukitzen zigun bakoitzean.

Azkenean, lortu genuen harrapatzea. Denak oso ahul ginen, ia ezin mugitu. Krema lortu genuen eta hobetu ginen. Goiz-eguerdian denak dezente hobeto ginen. Zerbait jan genuen eta joateko prestatu ginen. Etxera eraman gintuen Nekane, eta munstroa, berriz, laborategi batera eraman zuen. Bere aitaren ikerketa erakutsi zien eta publiko bihurtu zuen.

Gu sendatu ginen. Egia da amesgaiztoak ditugula, ez dugula inoiz ahaztuko, eta zaila dela berriz lehen bezala bizitzea, baina dena pasa egiten da eta hau, bueno, ba beste istorio bat da gure hurrengoei kontatzeko.

Orain 21 urte ditut eta, dakizuen bezala, testu hau idazten dut duela 10 urte gertatutakoa kontatzeko. Gehiago jakin nahi baduzue, begiratu Patxi eta Nekane aitalaben ikerketa.

2079ko ekainak 6

Kattalin Zinkunegi

Helmuga: etxera iristea

Ez nekien zer egin: gero eta gehiago ari zen gerturatzen eta, gainera, Anna urduritzen hasita zegoen. Azkar pentsatu behar nuen handik ihes egin eta batera atera nahi bagenuen.

Nik 3 urte besterik ez nituen gurasoak ikusi nituenean lehen aldiz elkar-joka. Ez zen garai erraza izan niretzat. Banandu ondoren —nik, ordurako, 5 urte inguru nituen—, ama beste gizon batekin elkartu zen. Ondorioz, orain anaiorde eta ahizpaorde bana ditut: Ihbsen eta Anna.

Alemanian bizi ginen, Munich hirian. Anna jaio zenean, nik 14 urte beteak nituen eta Ihbsenek 11 zituen betetzeko. Orduko Alemanian gerra zibila hasi berria zegoen eta, gerlariak behar zirenez, aitaordeak joan egin behar izan zuen. Bai, horrela deitzen diot eta horrela deitzen nion; ez genuen inoiz lortu ongi konpontzea eta nahiago nuen horrela. Azken finean, hura ez zen nire aita eta ez zen inoiz izango.

Gerratik ihes egin nahi genuen, amaren txikitako etxera, Ekuadorrera. Lortzeko bidean geundela, Hitlerren menpeko soldaduek ikusi eta ama erail zuten. Oso

gogorra izan zen Ihbsenentzat eta niretzat; Annak urte eta erdi zuen. Amak esan zizkidan azken hitzak ez ditut inoiz ahaztuko: «Pentsatzen duzuna baino indartsuago zara. Hori ez ahaztu inoiz». Horrela atera ginen aurrera hiru anai-arrebak.

Anna besoetan hartu eta korrika abiatu ginen baso batera iritsi arte. Oso ondo gogoratzen dut momentuan sentitzen genuena —nuena, hobe esanda—. Amodio eta tristura nahastean sortzen den emozio bat sentitzen nuen. Banekien indartsua izan beharko nuela. Nire aurpegia hobetu zen trenbide batekin topo egin genuenean. Itxaron ostean —azaldu behar dut ez dudala ongi gogoratzen zenbat egon ginen itxaroten, goseak oroimena kendu zidan eta— lehenengo harrapatu genuen trenera igo ginen urrutira joateko asmoarekin.

Austria eta Alemania arteko mugan zegoen abandonatutako etxe batean geratu ginen. Nahiz eta pixka bat zaharra egon, oso eskertuta geunden. Aitortu beharra daukat zaila egin zitzaidala amaren papera egitea. Gainera, egoera hartan Ihbsen eta biok ez ginen oso ondo konpontzen eta, berak bere «jokutxoak» egiten zituen bitartean, nik Anna zaintzen nuen.

Goizero, seiak iristean, baratzera gerturatu eta eguneko barazkiak hartzen nituen. Annari gosaria eraman —asko jota olo-poto eskas bat izaten zen— eta Ihbsenekin uzten saiatzen nintzen, ni lanera joan ahal izateko. Ez zen niretzat erraza hori egitea; Ihbsen beti zebilen aitzakiaren baten bila, baina, azkenean, Anna berarekin lagatzen nuen.

Kasik bi urte generaman etxe hartan, ahal genuen bezala bizirik irauten, eta soldaduek gero eta lurralde gehiago inbaditzen zituzten.

Astero bezala, gertuen zegoen herrira joan nintzen Annaren botiken bila. Han entzun nuen gerra iristear zegoela. Pentsatu nuen ihes egiteko egoera aproposa zela —aproposa esaten dut, baina nik uste hori ez dela hitzik egokiena. Bueno, ulertzen didazue, ezta?—. Etxera iritsi eta ez neukan ezer kontatzeko gogorik: motxila pare batean diru apur bat, genuen janari eskasa eta Annaren botikak sartu ondoren, Ihbsenengana abiatu nintzen. Ez nekien oso ondo zer esan, baina, azkenean, 14 urte bete behar zituen, nahiko heldua zen horrelako gauzak jakiten hasteko.

Hasieran, ezin zuen ulertu eta eroa nengoela esan zidan. Gero, gure egoera onartu ostean, mesedez eta arren eskatu zidan ea Basil eraman genezakeen, basoan aurkitu genuen txakurra; berak esaten zuen bezala; gure gida. Banekien traba egingo zigula, baina ez nuen egoista izan behar; beraz, baietz esan nion.

Egunsentian abiatu ginen. Kilometro batzuk ibili ondoren —nik egunero egin behar nituenak herrira iristeko—, ikusi genuen lehen gurdira igo ginen, hirira iritsi ahal izateko. Tren-geltokira ailegatzean, hiru txartel erosi nituen aurrezten egon nintzen diruarekin. Zoritxarrez, ez zitzaigun diru gehiagorik geratu. Jakina, ez zen pentsatzen genuen bezain erraza izan.

Bidaiaren erdialdean, Frantzian geratu behar izan ginen, trenak Espainiaraino zihoan arren, Annaren botikarik gabe geundelako. Normalean, astero joaten nintzen Annari botikak erostera eta irabazten nuen diruaren erdia horretan gatatzen nuen. Tren-geltokitik jaisterakoan, ikusi genuen ez ginela gaizki geunden bakarrak. Gu baino okerrago zegoen jendea ikusi genuen. Hiria zeharkatzen genuen bitartean, kalean janari eske zebiltzanak zeuden, baina baita hiltzorian zeuden ume eta helduak ere. Anna haiei lagundu nahian gerturatzen saiatzen zen, baina, bere gaixotasunagatik, ezin nion utzi haiengana gerturatzen.

Kalezuloak alde batera utzita, kale nagusian sartu ginen. Han zegoen farmazia. Gauzak asko aldatzen ziren han: jendea jantzi dotoreekin zihoan eta oso modu onean hitz egiten zuen. Beren begiradak aldatu ziren gu kale hartan agertu ginen: iltzeak bezalakoak ziren. Berehala konturatu ginen gure janzkeragatik zela. Kale hartan gu ginen ardi beltzak, eta soinean generamatzan trapu zaharregatik zen. Gure etxean sartuta egon ginenean edo ni herrira joaterakoan, ez zitzaigun horrelako gauzarik gertatu eta ez genuen ulertzen zergatik zen. Gaua iritsi artean egotea erabaki genuen, dirurik ez genuelako eta, nahiz eta nahi ez izan, lapurtu egin behar genuen. Annak ez zuen asko iraungo botikarik gabe; beraz, azkar lortu behar genituen. Gutxinaka kalea husten joan zen eta, gaua iristerako, kaleko azken denda itxi zuten. Ilekko urkila batekin farmaziako sarraila irekitzen saiatu nintzen, baina ez nuen zortarik izan.

Zoritxarrez, poliziak harrapatu gintuen botikak lapurtzen saiatzen eta bakoitzak umezurztegi batean bukatu genuen. Guztiok, Basil izan ezik; gaixoa ez genuen berriro ikusi. Denbora asko egon nintzen pentsatzen zer egin, baina ez nuen ideiarik; beraz, erabaki nuen 18 urteak betetzea handik atera ahal izateko. Hilabete batzuk ziren, baina ez nuen beste erremediorik. Umezurtzegian ez nuen oso ongi pasa: beste umeak, nahiz eta ez izan gurasorik, neu baino txikiagoak ziren eta, beraz, niretzat ziren zeregin guztiak. Gainera, pentsatzea Ibhsen edo Annari zerbait gertatu ahal zitzaizela... ez nuen inoiz barkatuko. 18 urte bete nituenean, maletak egin —duela hilabete batzuk hara joan nintzeneko arropak besterik ez izan arren— eta leku hartatik atera nintzen. Ez zitzaidan asko kostatu nire anai-arreben umezurztegiak aurkitzea, baina ez zen lan erraza izan haiekin kontaktua egitea. Hilabetera Ibhsenek eta biok harremanetan jartzea lortu genuen eta, handik aste-betera, hirurok alde egin genuen.

Nola edo hala iritsi ginen Espainiara. Ematen du atzo izan zela Amerikara zihoan lehen itsasontzira igo ginela. Berez, gauza asko egin genituen ilegalki, baina, azken finean, ez genuen beste erremediorik. Bidaia luzea izan zen hura, eta ia-ia harrapatu gintuzten. Kontainer baten gainean geundela, garabiak hartu eta itsasontzira igotzea lortu genuen. Duela urte batzuk gogoratzen dut nola esaten nuen: «Nik Ozeano Atlantikoa zeharkatu dut». Garai haietan arrantzale batzuek baino ez zuten egin hori; beraz, zekiten guztiek miresmenarekin begiratzen zidaten. Orain, hegazkinak direla-eta, dirua duen edonork zeharkatu dezake Atlantikoa.

Sukalde eta jantoki ondoko biltegian ezkutatu ginen. Egun batean norbait etorri zen. Ez genuen ihesbiderik eta harrapatu egin gintuzten. Juan sukaldariordea zen eta, arren eskatu ondoren, tratu batera iritsi ginen: egunero bertakoek bazkaldu ostean sobratutako janaria geuri ematen zigun eta sekretuan mantentzen gintuen. Egun batean, sukaldaria etorri zen biltegira. Normalean, Juan etortzen zen, baina sukaldean egon zen arazo batengatik berak etorri behar izan zuen. Segituan kapitainari esan zion, hark dei bat egin eta gela batean utzi gintuzten. Bidaia amaiera arte hantxe izan ginen. Ezin genuen kexatu: ohe bigun bat genuen eta egunero behar bezalako janaria ematen ziguten. Momentuan ez zitzaidan burutik pasa galdetzea zer gertatuko ote zen Ameriketara iritsitakoan. Pentsatzen nuen, hara iristerakoan, joateko esango zigutela, baina ez zen horrela izan.

Jaitsi eta andre bat zain genuen. Berriro umezurtzegi batera joan behar genuen. Bueno... ni ez, 18 urte nituelako, baina berriro banandu behar gintuzten. Anna, hura entzutean, urduritu egin zen. Ez nekien zer egin jada, hain gertu ginen... Azkar pentsatu behar nuen handik ihes egin eta batera segitu nahi bagenuen. Ibhseni belarrira zerbait esan eta ni, Anna hartuta, korrika atera nintzen. Inoiz baino gehiago egin nuen korrika. Banekien, banantzen baginen, ez ginela berriro elkartuko. Jarraitzen ez gintuztela konturatu nintzenean, gelditu eta Ibhsenekin geratu nintzen tokira joan nintzen Annarekin. Gaua egin zen, baina Ibhsen ez zen agertu. Okerrena pentsatu nuen momentuan. Hurrengo egunean berriro joan ginen, baina inor ez zen agertu. Ibhsen galdu genuen, baina ez nuen utziko Anna ere kentzea.

Azkenean, aitona-amonen etxera iristea lortu genuen, nahiz eta erraza ez izan. Duela urte batzuk bidali nien telegramaren ondorioz, ez zitzaigun oso zaila egin haiekin topatzea. Ibhsen ez genuen ikusi handik urte batzuetara arte: 18 urte bete zituenean, umezurztegitik alde egin zuen eta, asko bilatu ondoren, gu aurkitzea lortu zuen. Hortaz, hainbat aldiz amore eman arren, geure amaren oroitzapenak elkarrengandik gertu mantendu gintuen.


Jakina nire ama gogoan dudala. Beti egongo da geure bihotzetan, eta baita ere nire istorioa entzuten dutenen guztietan.

Itxaso Ayerbe Cisneros

Hutsal

Beldur naiz,
baina ez dakit zergatia.
Beldur naiz,
baina ezin diot inori esan.
Berdin dio...
dena da hain inutila...
Harrapatuta nago,
itzal bat izango banintz bezala,
borrokatu gabe.
Beldurra gehiegizkoa delako,
ito eta lotu egiten nau.
Ez dago ametsik, ez oroitzapenik,
ur ilun bat bakarrik,
gaiztoa,
gorputz dardaratsua sartzen duena
beldurraren barruan,
beste pertsona hutsal bat
harrapatuko balu bezala.

Maidor Olariaga



Blas Esnal

Joandakoak

Erlojuaren orratzak geldirik egonezin honetan,
burura etorri zaizkit zurekin pasatako momentuak,
zurekin izan nituen poztasunak
eta zurekin izan nituen haserreak...
Gogora etorri zaizkit zutaz ikasitakoak
eta zuri ikusitakoak.
Bizitza gogor bati
aurpegia erakutsi zenion
eta bizitza eder batekin joan zara, azkenean.
Gogoan dut oraindik zurekin egoten nintzen txoko hura,
zenbat ordu, zenbat arratsalde, zenbat urte zure alboan!
Gogoan ditut
zurekin bizi osorako gordeko ditudan sekretuak.
Orain joan egin zara,
hutsune bat dut orain begietan,
baina ez bihotzean, bertan egongo baitzara beti.

Ugaitz Astigarraga

